

Gizarte- eraldaketarako bidea:

Gradu Amaierako Lanak
eta Master Amaierako
Lanak eraldaketarako
tresna gisa

Lan-koaderno

LAN-KOADERNOA:

Gizarte-eraldaketakarako bidea: Gradu Amaierako Lanak eta Master Amaierako Lanak eraldaketarako tresna gisa.

IDAZKETA:

Eva Pérez-Pons Andrade
Pepe Ruiz Osoro
Joseba Sainz de Murieta Mangado
Leire Vázquez Orobio
Mònica Vega Bobo
Unai Villena Camarero

EDIZIOA:

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)
info.bilbao@euskadi.isf.es
www.euskadi.isf.es
CIF/IFK: G-48699045

FINANTZAKETA:

Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia

ITZULPENA:

June Díaz Bragado

MAKETAZIOA:

L'Apòstrof, SCCL

INPRIMAKETA:

Lankopi S.A.

Bilbo, 2019

Creative Commons 4.0 lizentzia



Gizarte- eraldaketarako bidea:

Gradu Amaierako Lanak
eta Master Amaierako
Lanak eraldaketarako
tresna gisa

Lan-koadernoak

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| 1. Hitzaurrea | 7 |
| 1.1. Gure begirada | 7 |
| 1.2. Lan-koaderno | 8 |
| 2. Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak | 11 |
| 2.1. Unibertsitateko testuinguru kontraesankorra | 11 |
| 2.2. GrAL eta MALen potentzial eraldatzailea 10 indar-ideiatan jasota | 12 |
| 1: Unibertsitatearen eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketa | 13 |
| 2: Gizarte-eraldaketarako sinergiak | 14 |
| 3: Begirada transdiziplinarrak | 15 |
| 4: Esperimentazio metodologiko emantzipatzaileko guneak | 15 |
| 5: Testuinguru mugatuetara egokitzea | 15 |
| 6: Zorroztasun akademikoa | 16 |
| 7: Ikasleak subjektu aktibo hezkuntza-prozesuan | 16 |
| 8: Autonomia bultzatzea | 16 |
| 9: Eremu akademikotik harago eragitea | 17 |
| 10: Gizarte-eraldaketara bideratutako trebetasun profesionalak | 17 |
| 2.3. GrAL eta MALen potentziala indartzen duten esperientziak | 18 |
| Gaztenpatia | 18 |
| Campus Bizia Lab | 19 |
| Berdintasunerako Zuzendaritzak ematen dituen María Goyri eta Francisca de Aculodi sariak | 19 |
| Hegoa Institutuaren Hezkuntza taldeak bultzatutako ekimenak | 20 |
| Unibertsitate Kritiko Sarea (UKS) | 20 |
| EMAUS Gizarte Fundazioa | 21 |
| Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI) | 21 |
| 2.4. GrAL eta MALen potentzial eraldatzailearen mugak | 22 |
| Nahitaezko banakotasuna | 23 |

| | |
|-------------------------------------|----|
| Lan-karga handiagoa ikasleentzat | 24 |
| Irakasleen denbora falta | 25 |
| Irakasleen prestakuntza | 25 |
| Irakasleen prestakuntza | 26 |
| Ebaluazio-mekanismoak | 27 |
| Genero-ikuspegia, hautazko erabakia | 27 |

3. Metodologia feministak: gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak egiteko tresna **29**

3.1. Hitzaurrea eta atalaren helburua 29

3.2. Metodologia feministak aplikatzeko abiapuntua: pertzepzioak eta joerak 30

3.3. Metodologia feministetara hurbiltzea 31

3.4. Ikerketetan metodologia feministak aplikatzeko lagungarriak 32

| | |
|--|----|
| Ikerketa-taldea eta botere-harremanak | 33 |
| GrAL eta MALen helburuak eta diseinua | 33 |
| Datuak sortzea eta aztertzea, ezagutza kokatua | 33 |
| Ezagutza irekia, zabalkundea eta itzulketa | 34 |
| Hizkuntza eta bibliografia | 35 |

3.5. Interseksionalitatearen erronkari aurre egitea 36

| | |
|--------------------------------|----|
| Begirada feminista dekoloniala | 37 |
| Sexu- eta genero-aniztasuna | 38 |

4. Etorkizunerako erronkak eta bideak **41**

4.1 Gizarte-eragileekin elkarrizketan aritzen den eta gizarte-eraldaketarako sinergiak sustatzen dituen unibertsitatearen erronka 41

| | |
|---|----|
| Akademiatik harago heltzea: unibertsitatearen eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketa sortzea | 41 |
| Gizarte-eraldaketarako sinergiak | 42 |
| Begirada holistiko baten alde apustu egitea | 42 |

4.2 GrAL eta MALen prozesuak kolektibizatzearen erronka 43

| | |
|----------------------------------|----|
| Banakakotasuna alde batera uztea | 43 |
| Komunikazioa prozesu eta zubi | 43 |

4.3 Hezkuntza emantzipatzailearen prestakuntzaren erronka 44

| | |
|----------------------------------|----|
| Ikasketa-planetan eragina izatea | 44 |
|----------------------------------|----|

| | |
|--|-----------|
| Ikasle zein irakasleentzako prestakuntza osagarria | 44 |
| 4.4 Genero-ikuspegia gainditzeko eta metodologia feministetara jotzeko erronka | 45 |
| Ikuspegi feminista txertatzeak duen garrantzia helaraztea eta metodologia feministak ezagutaraztea | 45 |
| Eskertzea | 47 |
| Bibliografia | 49 |

1. Hitzaurrea

1.1. Gure begirada

Ingeniería Sin Fronteras País Vasco - Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritza (hemendik aurrera, ISF-MGI) GGKE eta unibertsitateko elkarte bat da. Gure jarduera unibertsitatearen barruan garatzen dugu, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren eta Nazioarteko Lankidetzaren eremuan, bidelagun boluntarioen lanari, ahaleginari eta ilusioari esker.

Eraldaketa Sozialerako Hezkuntza aurreko Garapenerako Hezkuntzaren eboluzioa da, tokiko-munduko ikuskera batetik eta ikuspegi politiko pedagogiko batetik abiatuta, herritar kritikoak, hots, gure planetan gertatzen diren bidegabekeriaren eta desberdintasunen jakinaren gainean dauden herritarrak, heztea helburu duena, eta ideia horrekin bat datozen eta aldaketak eragiten dituzten praktikak sustatzen dituena.

Sektore eta kultura ezberdinetako pertsonekin lan egiten dugu, eta haiekin Giza Garapen Jasangarriaren eredia partekatzen dugu, non zientzia eta teknologia pertsonen eta bizitzaren zerbitzura jartzen diren eta etorkizun bizigarri eta jasangarri bat lortzeko eraldaketa-tresna bilakatzen diren.

Neutraltasunaren eta objektibotasunaren bidez diskurtsoak legítimoagoak eta doiagoak direla defendatzen dutenen aurrean, guk partzialtasuna onartzearen eta partzialtasunaren potentziala erabiltzearen alde apustu egiten dugu. Breuerek dioenez (2003:2), «ezagutza guztiak dira ezagutzen dituen subjektuaren ezaugarrien eramaile eta, ondorioz, modu ezeztazinean eta berez subjektiboak dira». Horregatik, gaiari heldu aurretik, nondik hitz egiten dugun azaldu nahi dugu. Erabaki kontzientea izan da, errealitatearen gaineko azterketa-esparru jakin bat duen gizarte-eragile gisa ikusarazten eta posizionatzen gaituen apustu politikoa, alegia.

ISF-MGI n hezkuntza eraldatzaile baten alde apustu egiten dugu: gaur egungo sistema kapitalista eta patriarkala, transmititu dizkiguten estereotipoak, diziplina ezberdinen onespenera hierarkia, gaur egunera arte ekarri gaituzten bideen oinarrian dagoen gizarte-egitura eta, azken buruan, hezkuntza-sistema bera zalantzan jartzen dituena. Hezkuntza parte-hartzaile baten alde apustu egiten dugu, non ikaskuntzak pertsonaren barne bilakaerarekin zerikusia duen eta prestakuntza jendearen benetako arazoak konpontzera bideratzen den, gaur egun gaingaitu behar ditugun arazo globalen zerbitzura dauden zientzia eta teknologia berri bat sustatzeko helburuarekin.

Bestalde, lan-koaderno honen ikuspegia eta hizkuntza ez dira ausazkoak, aitzitik, posizionamendu politiko kontziente baten emaitza dira. Hizkuntza inklusiboa erabiltzen dugu, erakunde gisa egin dugun apustu feministak eskatzen duen genero-ikuspegitik abiatuta. Hegoako Hezkuntza-taldeko Amaia del Ríoren esanetan, «posizionamendu estetiko soilak saihestu behar ditugu: hizkuntza ez da kontuan hartu beharreko gauza bakarra, azalean geldituko

gara gero besterik ez badago. Hizkuntza garrantzitsua da, baina minimo bat da. Egituran sakondu behar dugu»¹.

Hau esaten dugu sinetsita baikaude genero-ikuspegiak, posizionamendu politiko feminista-rik gabe, gizon eta emakumeen arteko arrakalak eta beste talde batzuk gurutzatzen dituzten zapalkuntzak (LGTBIQA+² kolektiboko kideek edo pertsona arrazializatuek oraindik jasaten duten berdintasunik eza) betikotzen dituela. Gaur egun, genero-ikuspegi diskurtsiboa erabiltzen duten banakako zein talde-eragile askok ez dute desberdintasunak eragiten dituen sistemarekiko ikuspegi kritikorik. Genero-ikuspegia gairadiko begirada feminista gabe txertatzen badugu, justizia soziala xede duten borrokak despolitizatzeke arriskua dugu.

Adierazitakoaren arabera, lan-koaderno hau prozesu baten emaitza da, baina ez da erantzunezina; aitzitik, eraikitzen hasteko abiapuntu bat osatzea du helburu, aurrerago azalduko dugun bezala.

1.2. Lan-koaderno

Lan-koaderno hau, **hausnarketa parte-hartzaile eta kolektibo** baten emaitza izateaz gain, 2012an argitaratu genituen bi lan berraztertzeke, eguneratzeko eta haiei segida emateko sortu da. Lehenengo argitalpena *Unibertsitateko Hezkuntza Eraldatzailea Helburu UPV/EHUn 2006-2012 urteetan Garapenerako Lankidetzaren inguruan egindako Karrera Amaierako Proiektuei buruzko txostena* izan zen, eta bigarrena *Genero ikuspegiaren aplikazioa GrAL eta MAL proiektuetan*.

Zazpi urte igaro dira lan horiek argitaratu genituenetik, eta uste dugu garaia iritsi dela harrezkero gertatu dena aztertzeke eta azken urteotan landu ditugun hausnarketa eta ikuspegi berriak txertatzeko.

2012tik hainbat aldaketa gertatu dira bai unibertsitatean bai gure erakundearen barruan. Lan horiek argitaratu ziren garaian, Goi Mailako Hezkuntzaren Europar Esparrua (EEES) sortzen ari zen eta aurreko Karrera Amaierako Proiektuek, ingeniari eta arkitektura titulazioetan bakarrik egiten zirenak, Gradu Amaierako Lanak bihurtu eta EEESko gradu eta titulazio guztietara zabaldu ziren. Bestetik, lan-koaderno honetan, unibertsitate-esparru berriak Gradu Amaierako Lanetan eta Master Amaierako Lanetan (hemendik aurrera, GrAL eta MAL) eragin dituen aldaketak aztertu nahi ditugu.

Izen-aldaketa hutsa baino, aldaketak izan dira hainbat titulaziotan lan horiei esleitzen zaien kreditu-kopuruan (lana egiteko behar den ordu-kopurua) eta, ondorioz, ikasleek eta lanak zuzentzen edo tutorizatzen dituzten irakasleek lana idazteko duten irismenean. Une hartan, GrALak unibertsitateko gradu guztietara zabaltzeko erabakia transdiziplinatasuna lantzeko aukera ontzat hartu zen, lanen zuzendarikidetzarako eta gaien aniztasuna bultzatzeko bidea irekitzen baitzuen. Dokumentu honetan aldaketa horiek zer ondorio izan dituzten eta nola gorpuztu diren aztertuko dugu.

1 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

2 Zientzian, teknologian eta berrikuntzan aniztasun sexu-afektiboa eta generokoa bultzatzen dituen elkarteak (PRISMA) erabiltzen duen nomenklaturari jarraiki, LGTBIQA+ siglek lesbianak, gayak, transak*, bisexualak, intersexualak, queerak, asexualak eta cis-heterosexual arautik kanpoko beste identitate batzuk barne hartzen dituzte.

Gai hau eta beste hainbat gai jorrazteko **metodologia parte-hartzaile** bat erabili dugu. Horri esker, gizarte-eraldaketaren inguruko hainbat GrAL eta MALetan parte hartu duten edo pentsamendu akademiko hegemonikoaren eraikuntzak dituen sesgoen gainean gogoeta kritikoa egin duten eragile ezberdinekin hausnartu eta ezagutza eraiki ahal izan dugu. Eragile horien ahotsak eta iritziak txertatzen saiatu gara hainbat tresna erabiliz: diagnostiko bat, galdeketak, elkarrizketa pertsonalak, ikasleekin topaketa bat, proposamen kolektiboak eraikitze saio bat eta talde-bilera anitz egin ditugu bitarteko emaitzak alderatzeko eta esperientzia propioetik ateratako analisiak txertatzeko.

Nori dago zuzenduta? Lan-koaderno hau GrAL eta MALek duten potentzial eraldatzailearen gainean gogoeta egiteko tresna izan gura du; hortaz, GRAL eta MALen identifikazioan, garapenean eta ebaluazioan parte hartzen duten kolektibo guztietako pertsonentzat erabilgarria izango dela espero dugu.

Gogoan hartu behar dugu GrAL eta MALetan, unibertsitateko botere-eremu ezberdinetako eragileak daudela tartean sartuta. Alde batetik, araudiak eta ebaluazio-sistemak definitzen dituzten unibertsitateko kudeaketa-egiturak; eta, bestetik, lan horiek zuzentzen dituzten irakasleak, lanak egiten dituzten ikasleak eta, azkenik, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen kasuan, gizarte-erakundeak.

Hala, **gure helburua** da lan-koaderno hau hausnarketa-tresna izatea, guk bezala, GrAL eta MALek gizarte-eraldaketa bultzatu dezaketela eta gizarte-beharrei erantzuteko potentzial ukaezina dutela sinesten duten unibertsitateko eragileentzat; ezin dugu ahaztu unibertsitateko ikasleek orduak eta orduak ematen dituztela lan horiek prestatzen.

Gauzak horrela, dokumentu honek ez du utilitarista izan nahi, ezta aplikazio unibertsaleko errezeta ere, besterik gabe, GrAL edo MAL bati gizarte-eraldaketa eragiteko gogoz heltzen diogunean kontuan hartu beharrezko gako eta dimentsio batzuk planteatzen ditu.

Lanaren irismenari dagokiolarik, jakinaren gainean gaude kontsultatutako lagina (ikasle, irakasle eta tartean dauden beste eragileak) askoz zabalagoa izan zitekeela, baina lan guztiekin gertatzen den legez, denbora eta baliabide mugatuak genituen, eta ahal izan dugun kopuru handiena aztertu dugu.

Horrez gain, badakigu alderdi batzuk kanpo gelditu direla eta beste batzuetan ez dugula nahi adina sakondu, hala nola interseksionalitatea, dekolonialismoa, oinarrizko gizarte-berrikuntzak, eta abar. Baina, beste behin, kontziente izan behar genuen denbora eta baliabide mugatuak izateaz gain, bagenituela lan-koaderno hau egiteko muga propioak ere.

Amaitzeko, azpimarratu nahi dugu dokumentu hau ahalegin kolektibo baten emaitza dela. Dokumentuaren idazketan parte hartu dugun pertsona guztiak ISF-MGiko kideak gara, unibertsitatearen eremuan lan egin ohi dugu, gutako askok ikasketa teknikoak egin dituzte eta, batik bat, gradu teknikoetako GrAL eta MALak aztertu ditugu. Jakinaren gainean gaude horrek sesgoa eragin dezakeela, baina uste dugu atera ditugun ondorio asko beste mota batzuetako gradu eta graduondokoetara estrapolatu ahal izango direla.

Horiek horrela, zientziaren eta teknologiaren kontzepzio hegemonikoa eta balizko neutraltasuna zalantzan jartzera, eta imaginario kolektibo berriak eraikitze pentsamendu-aldaketa egitera interpelatuta sentitzen gara. Amaia del Ríoren esanetan, «gure ustez, zein da mundu zientifiko/teknologikoak gizarte-eraldaketarako prozesuetan izan behar duen rola? Zergatik jotzen dira zientziatzat ezagutza jakin batzuk eta beste batzuk ez?»³. Boaventura de Sousa Santosek dioenez (2010:32), «zientzia modernoaren monokultura jakintzen ekologiarekin»

3 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

alderatu behar dugu, ezagutzen aniztasuna eta haien arteko interkonexioak aintzat hartu, ezagutzen autonomia murriztu gabe betiere.

Lan-koaderno hau eragile guzti horientzat erabilgarria izatea espero dugu, guztiek esku hartzen baitute GrAL eta MALak idazteko prozesuan. Gure ustez, GrAL eta MAlek oso rol garrantzitsua izan dezakete ikasleen prestakuntzan, ikasketa-planek ematen dieten irakasgai-izaeraz harago. Jarraian arrazoituko dugu zergatik esaten dugun hori.

2. Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak

2.1. Unibertsitateko testuinguru kontraesankorra

UPV/EHUren fakultate eta unibertsitate-zentro askok (hala nola Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Sarriko⁴, Psikologia Fakultatea⁵ edo Zientzia eta Teknologia Fakultatea⁶) diote haien eginkizun ofiziala ezagutza akademikoa sortzeko eta hedatzeko guneak eskaintzea dela, gizartearekin konprometituta daudela eta gizarte-beharrei erantzuten dieten profesionalak prestatzen dituztela. Alabaina, *Hezkuntza kritiko emantzipatzailea. Diagnostikoa Euskal Herriko Unibertsitatean* (UPV/EHU) (2011-2015) txostenaren ondorioetan jasotzen den bezala, «unibertsitatea elkarrizketa-guneak eta hausnarketarako topaguneak sortzearen alde agertzen den aldi berean, merkatuaren interesei erantzuten dieten beste joera batzuk gainjartzen dira» (Del Río eta Celorio, 2018:103).

Hala, UPV/EHUK gizarte-eraldaketarekin lotutako balioak defendatzen dituzten dokumentu instituzionalak ditu, baina horrek ez du bermatzen gizarte-eraldaketa bultzatzeko edo lortzeko ahalegina egiten duenik. Horregatik, batzuetan, unibertsitate barruko politikak inkoherenteak dira. Goian aipatutako UPV/EHUren diagnostikoan adierazten den moduan, «Batzuetan, Unibertsitateak, bere dokumentu programatikoetan eta txostenetan, aniztasunaren, inklusioaren, parte-hartzearen eta abarren inguruan, itxuraz kritikoak diren elementuak sartzen ditu. Ez du lortzen, haatik, instituzio honetako curriculumak, gizarte-arauak eta botere-harremanak aldatzea» (Del Río eta Celorio, 2018: 102).

2006ko ekainaren 23an onartu zen Garapenerako Lankidetzaren arloko Unibertsitateen Jokabide Kodeari⁷ erreparatzen badiogu, ikusiko dugu Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarra (CRUE) osatzen duten unibertsitateak hainbat baliorekin konprometituta daudela: «bakea, demokrazia eta giza eskubideen errespetua, giza garapen jasangarri bat sustatzeko

4 UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatearen eginkizuna, ikuspegia eta balioak: <https://www.ehu.eus/eu/web/ekonomia-enpresa-fakultatea/fceeren-eginkizuna-ikuspegia-eta-balioak> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

5 UPV/EHUko Psikologia Fakultatearen eginkizuna, ikuspegia eta balioak: <https://www.ehu.eus/eu/web/psikologia/misioa-ikuspegia-eta-balioak> [Azken kontsulta: 2020/01/06].

6 UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatearen eginkizuna, ikuspegia eta balioak: <https://www.ehu.eus/eu/web/ztf-fct/mision-vision-valores> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

7 Garapenerako Lankidetzaren arloko Unibertsitateen Jokabide Kodea: <http://www.ocud.es/files/doc374/codigoconducta.pdf> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

edozein prozesuren funtsezko oinarriak dira; hortaz, Garapenerako Unibertsitateen Lankidetzaren helburu nagusiak ere izango dira». Unibertsitatea hain zatikatua izaki, alde batetik, horrelako diskurtsoak sortzen ditu eta, bestetik, armen industriarekin eta indar armatuekin hitzartutako lankidetzaprogramak mantentzen ditu.⁸

Kontraesan horiek mantendu eta berretsi egiten dira ahalegin guztiak parekatzen dituen eta, helburua alde batera utzita, ahaleginak ordu-kopurura murrizten dituen sistema batean. Horiek horrela, sistemak modu berean ebaluatuko ditu gerrarako hegazkinen efizientzia hobetzeko ikerketa akademiko bat, GrAL edo MAL bat barne har dezakeena, eta auzo bateko populazio pobretuan uraren pribatizazioak eragin dituen ondorioen gaineko ikerketa bat egiten ematen ditugun orduak, egilearen jakintza-arloarekin lotutako berariazko alderdi akademikoak soilik aintzat hartuta.

Batzuetan kontraesankorra den unibertsitate-testuinguru zatikatu horretan, nekez lortuko dugu ekintza sakabanatuen bidez unibertsitateak gizarte-eraldaketaren zerbitzura egoteko urratsak egitea. Jakinaren gainean gaude egitura sendo eta politikoak behar ditugula (Del Río eta Celorio, 2018:104), gaur egungo ereduaren esparrua eta balioak aldatu behar ditugula. Halere, sinetsita gaude agertzen diren aukera-leihoak batzen baditugu, aldaketa eragingo dugula, arrail batzuek beste batzuekin topo egin ahala.

Gizarte-eraldaketa (goian azaldutako paradigma-aldaketa gisa ulertuta) helburu duten GrAL eta MALEk erakundeen babesarekin dena balekotzat hartzeko joera baztertu eta akademiaren barruan aldaketaren hazia landatu nahi dute. Aura Vázquez Munduko Emakumeak Babel kolektiboko kideak dioenez, GrAL eta MALak eraldaketarako tresnak izan daitezke, baina, horretarako, ezinbestekoa da inplikatzeko eta lan horiek ikasketak amaitzeko betekizun soilak ez direla ulertzea⁹.

Hurrengo ataletan, arazo hori sakonago aztertzen saiatuko gara eta arrazoituko dugu zergatik uste dugun GrAL eta MALEk potentzial propioa dutela gizarte-eraldaketaren zerbitzura dauden ikerketak eraikitzeko, bide berriak urratzen ari diren esperientziak ikusarazteko eta gainditu beharko genituzkeen mugak seinatzeko.

2.2. GrAL eta MALEn potentzial eraldatzailea 10 indar-ideiatan jasota

Esan bezala, GrAL eta MALEk potentzialtasunak dituzte gizarte-eraldaketarako tresna izateko. Ez dira irakasgai soil bat: ikasturte bakoitzean egiten diren ikerketa-lanen kopuruari horiek idazteko ikasleek eman dituzten orduen kopurua gehitzen badiogu, ikusiko dugu lan horiek unibertsitate-testuinguruan garrantzi handia dutela¹⁰. Haatik, azpimarratu be-

8 Espainiako Gobernuak Defentsa Ministerioak argitaratutako *La colaboración tecnológica entre la universidad y las Fuerzas Armadas* (Unibertsitatearen eta indar armatuen arteko lankidetzateknologikoa) koadernoan adierazten den legez, UPV/EHU indar armatuekin eta defentsa-industriarekin lankidetzaproiektuak dituzten unibertsitateetako bat da, ITP enpresarekin garatzen duen programa dela eta. Eskuragarri hemen: http://www.ieee.es/publicaciones-new/cuadernos-de-estrategia/2016/Cuaderno_182.html [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

9 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

10 2017/2018 ikasturtean, UPV/EHU, guztira, 6.157 ikaslek amaitu zituzten graduiko ikasketak eta beste 1.811 ikaslek graduondoko ikasketak. Kontuan hartuta GrAL eta MALEk 6-12 kreditu eman ohi dituztela eta ECTS (European Credit Transfer System) kredituek 25 orduko dedikazioa eskatzen dutela, esan dezakegu GrAL eta MALEk, ikasturteko, 200.000 ordu inguruko lana ematen dietela ikasleei.

harra dago GrAL eta MAL guztiek ez dutela gizarte- eta kultura-desberdintasunak arintzen laguntzeko ezagutza sortzen, eta, bestetik, GrAL eta MALek ez dutela bikainak izan behar gizarte-eraldaketa eragiten dutela esan ahal izateko. Lanek haien potentzialtasunak aktibatzen duten gaitasunaren arabera izango da eragiten duten banakako zein gizarte-eraldaketa.

GrAL eta MALen potentzialtasunak aipatu aurretik, ahalmen eraldatzailea zehaztu behar dugu. Logikoa denez, programa akademikoek, ikasleek eta unibertsitateak, bere osotasunean, ez badute gizarte-eraldaketaren aldeko apustu irmoa egiten, nekez lortuko dute GrAL eta MALek unibertsitateko estamentu guztien ekintzarik eza zuzentzea. Puntu honetan, garrantzitsua iruditzen zaigu UPV/EHUko Ekonomia Aplikatuko Saileko irakasle den eta gizarte-eraldaketarako hamaika lan akademikotan parte hartu duen Marta Barandiaráñen ikuspegia azaltzea¹¹. Haren iritziz, curriculumaren barruan, GrAL eta MALak dira gizarte-eraldaketaren ildoan lan egiteko aukera bakarra; ez potentzial handia izanagatik, baizik eta curriculumak nolabaiteko abagunea uzten duen ikasgai bakarrenetakoa delako. Aurrerago azalduko dugunez, GrAL eta MALen rol eraldatzailea indartu ahal izateko, unibertsitate-ehuna osatzen duten geruza guztien berrazterketa sakona egin behar da. Halere, sinetsita gaude, testuinguru zailtan ere, GrAL eta MALek ezaugarri bereziak dituztela, hezkuntza emantzipatzaile bat eraikitze bide berriak erakusten dizkiguten arrailak irekitzea ahalbidetzen dutenak.

Eraldaketa-prozesuak joan-etorriko bidaia dira gizarte-mailatik maila pertsonalera; ez dira dualtasun bananduak, baizik eta elkar elikatzen duten eremu interkonektatuak. Gauzak horrela, GrAL eta MALak eraldaketarako tresna izan daitezkeela arrazoitzean, lehendabizi, gizarte-mailan oihartzun handiagoa duten elementuak zerrendatuko ditugu, eta, bukatzeko, maila pertsonalean modu zuzenagoan eragiten duten elementuak seinalatuko ditugu. GrAL eta MALen potentzialtasunak 10 indar-ideiatan antolatu ditugu, baina potentzialtasun horien mugak ez dira definituak; potentzialtasunak interkonektatuta daude eta elkarren arteko sinergiak bilatzen dituzte. Hortaz, bidea irekita uzten dugu proposatzen dugun zerrenda hori luzatzeko eta kategoria berriak sortzeko.

1. Unibertsitatearen eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketa

Hezkuntza kritiko emantzipatzailea. Diagnostikoa Euskal Herriko Unibertsitatean (UPV/EHU) (2011-2015) azterketan azaltzen den bezala, gaur egungo globalizazio neoliberalaren eremuan, unibertsitateak enpresarekin duen harremanak gero eta gehiago baldintzatzen du unibertsitatean sortzen den ezagutza (Del Río eta Celorio, 2018:24). Hala eta guztiz, badaude ere beste ezagutza-modu batzuk onartzen dituzten eta unibertsitatearen eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketa sustatzen duten mugimenduak. Ildo horretan, gure ustez, GrAL eta MALak gizarte-agenda-rekin uztartzeko aukera da potentzialtasun aipagarrienetako bat; horrek unibertsitatearen eta gizarte zibil antolatuaren arteko harremana sendotuko luke eta. Izan ere, GrAL eta MALak unibertsitateko curriculumetan giza garapenarekin eta gizarte-eraldaketarekin lotutako eztabaidak eta gaiak txertatzeko bide-urratzaileak izan daitezke, ikasketa-planen zurruntasuna eta gai horiek irakasgaietan txertatzeko zailtasunak aintzat hartuta.

11 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

UPV/EHUren estatutuek, berez, xedatzen dute unibertsitatearen zabalkundea eta proiektzioa gizarte- eta kultura-desberdintasunak arintzera bideratu behar dela; ondorioz, gizarte-agendarekin sintonia sortzea ez litzateke izan beharko unibertsitatearekin nolabaiteko harremana duten talde txikien ahalegin zintzoa, baizik eta unibertsitate osoaren apustu irmoa. Unibertsitateak gizarte-erakundeekin duen harremana sendotzen badu, eremu akademikotik harago doazen errealitateak aintzat hartzen baditu eta herritarren eskaerak bideratzeko gizarte-eragile baliagarria dela erakusten badu, arraila handia irekiko da, unibertsitatea gizarte-eraldaketarako eragile bilakatuko duena.

2. Gizarte-eraldaketarako sinergiak

Gaur egungo errealitatea hain da konplexua eta aldakorra, non ezinezkoa den gizarte-eragile bakar batek aurrean ditugun erronka guztiei erantzutea; horregatik, premiazkoa da gizarte-eragileen arteko elkarrizketa sustatzea. Testuinguru horretan, bereziki baliagarria da gizarte-erakunde eta -mugimenduek unibertsitateak eskaintzen dituen aktiboak erabili ahal izatea, kasu honetan, GrAL eta MALen bidez, gizarte-eraldaketarako bidean egiten dituzten analisi eta proposamenak eraikitzen jarraitu ahal izateko. Eredu horrekin, ezagutza erabilgarri eta praktikoa baten eraikuntza bultzatzen da, gizarte zibilak eskatuta. Zalantzarik gabe, gizarte-mugimenduekin elkarlanean aritzea aberasteko aukera da unibertsitatearentzat, beste errealitate, egitura eta funtzionatzeko modu batzuetara hurbiltzeko aukera baita. Izan ere, bi aldeak aberastu daitezke gizarte-desberdintasunen aurrean indarrak batzen badituzte eta unibertsitate barruan zein kanpoan intzidentzia duen agenda bat sortzen badute.

Ez da berria gizarte zibilaren beharrak eta arazoak unibertsitateko ikerketa eta prozesuekin uztartzeko planteamendua. 70eko hamarkadatik aurrera, Europako iparraldeko hainbat unibertsitatek *science shop* izeneko ekimenak abiarazi zituzten. Maiz unibertsitateko sail bati atxikita dauden *science shop* guneeek gizarte zibilak helarazitako kezkei erantzuten laguntzen dute ikerketa parte-hartzaile independenteak bultzatuta. Ekimen aitzindari horiek *science shop* anitzen sorrera piztu zuen beste herrialde batzuetan (Danimarka, Alemania, Austria, Portugal, Errumania, Belgika, Erresuma Batua eta Kanada). Gaur egun, horiek guztiak Living Knowledge izeneko nazioarteko sarean sartuta daude¹².

Ekimen horiek eta gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALek iritzi bera dute: GrAL eta MALek jorratzen dituzten ideiak eta gaiak gizarte zibilaren benetako beharrian eta arazoetan oinarritu behar dira. Planteamendu horrek onura bikoitza edota hirukoitza dakar. Alde batetik, ikasleek eta irakasleek haien jakintza baloratzen dela ikusten dute, eta hori garrantzitsua da maila pertsonalean; bestetik, gizarte-eztabaidak eta -problematikak ikerketak definitzen diren gunetan txertatzen dira; eta, azkenik, herritarren ahalduntze zientifikoa bultzatzen da, herritarrak ikerketa-prozesuetan aktore aktibo bihurtzen direlako.

12 Eskuragarri hemen: <https://www.livingknowledge.org/> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

3. Begirada transdiziplinarrak

Unibertsitate barruan ere, GrAL eta MALak jakintza-eremu ezberdinen arteko elkar-gune eta eztabaidaguneak izan daitezke. UPV/EHU sail eta fakultateen arteko elkar-rrizketa-gune horiek bultzatzen hasi den arren, ekimen horiek praktika orokortu bilakatzeko bide luzea dugu aurretik. Hiperespezializaziorako joeraren aurrean, GrAL eta MALak diziplina ezberdinetara hurbiltzeko ariketa izan daiteke, begirada holistiko eta integralagoen aldeko apustua. Ezagutza-eremu ezberdinen artean elkar-rrizketa konstruktiboak praktikan jartzeko guneak behar dira; eta GrAL eta MALEk bete dezakete hutsune hori.

4. Esperimentazio metodologiko emantzipatzaileko guneak

Era berean, GrAL eta MALEk planteamendu metodologiko ezberdinak erabiltzea eta, azken finean, jakintza eraikitzekeo modu hegemonikoak ez diren beste modu berri batzuk aztertzea ahalbidetzen dute. Nahiz eta ohiz kanpokoak izan, maila kualitatiboan garrantzitsua da ikusaraztea badaudela jakintza-eremu ezberdinen arteko elkar-rrizketa bultzatzen duten esperientziak edo, are gehiago, ezagutza eraikitzekeo paradigmaren errotikako aldaketa proposatzen duten metodologiak sustatzen dituzten esperientziak, alderdiak subjektu aktibo gisa identifikatzen dituztenak, zapalkuntzak deuseztatzeko konpromisoa hartzen dutenak eta parte-hartze horizontala zein jakintzen arteko elkar-rrizketa bultzatzen dituztenak. Asmoa da gizarte-eraldaketaren aldeko apustua helburu horrekin bat datozen metodologiaren bidez egitea; eta horrek gure egungo jardunbideak eta praktikak zalantzan jartzen ditu zuzenean. Hurrengo ataletan metodologia kritiko horiek aldarrikatzen dituzten proposamen eta balioak aztertuko ditugu.

5. Testuinguru mugatueta egokitzea

Enkarni Gómez Genua UPV/EHUko Fisika Aplikatua I Saileko irakasleak dioenez, «arkitektura ezin da bereizketatik proiektatu»¹³. Gure iritziz, errealitate bat eraldatzeko erabilgarri izan gura duen edozein ezagutza-eremurik errealitate horren berezitasunak aintzat hartu behar ditu. Jakinaren gainean gaude testuinguru aintzat hartzeko eskaerak GrAL eta MALen zailtasuna edo inplikazioa areagotzen duela, baina, aldi berean, erreplikabilitate automatikoaren logika apurtzen du: toki jakin baterako balio duena ezingo da beste toki batean zuzenean erreplikatu. Eta, hain justu, GrAL eta MALen eremuan garatzen diren ikerketen ezaugarriek orokortzeko joera saihesteko eta aztertzen ari garen testuinguruaren berezitasun zehatzak aintzat hartzeko aukera ematen dute.

13 Lan-koaderno honetarako egindako elkar-rrizketa batetik.

6. Zorroztasun akademikoa

GrAL edo MAL batek gizarte-eraldaketarako tresna izateko apustua egiteak ez du esan nahi lanak zorroztasun akademikoa izango ez duenik. Lan-koaderno hau egiteko ikerketa-prozesuan zehar elkarrizketatu ditugun pertsona guztiak ados agertu dira adierazpen horrekin. Alabaina, hainbat estamentu akademikok betiko ideiarri eusten diote: ikerketak (dela gizarte-zientzien arlokoa dela zientifiko-teknologikoa) neutroa, inpartziala izan behar du, eta errealitatearen aurreko posizionamenduek (ondo argudiatzen baditugu ere) azterketaren zorroztasunari kalte egin diezaiokete. Izan ere, GrAL eta MALak zorroztasun akademikoarekin lotutako dinamika jakin batzuk deuseztatzeko aukera izan daitezke, hala nola norberaren mugak eta ikerketaren mugak, desadostasunak edo hasierako hipotesiaren porrota onartzea.

7. Ikasleak subjektu aktibo hezkuntza-prozesuan

Ikasleei dagokienez, GrAL eta MALek hainbat elementu eskaintzen dituzte ikaslea bere hezkuntza-prozesuaren protagonista aktibo bihurtzeko. Egungo ikaske-ta-planek aukera gutxi ematen dizkiete ikasleei irakasgaietako gaiak, eztabaidak eta hausnarketak norantz bideratu nahi dituen erabakitzeke; zurruntasun horren aurrean, ikasleak GrAL eta MALek ematen dituzten kreditu guztiak interesatzen zaizkion gaietara bidera ditzake. Besteak beste, tutore bat edo beste hautatzeko, proiektu bat asmatzeko, ikasgelako edo laborategiko mugetatik harago pentsatzeko eta ikaslearen interesekin bat datozen lurralde eta erakundeetara begiratzeko aukera. GrAL eta MALak motibazioaren katalizatzaile izan daitezke ikaslea bere hezkuntza-prozesuaren jabe egin dadin. Elkarrizketa eta galdeketen bidez egiaztatu dugu, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALetan, ohikoena dela gizarte-erakundeak edota ikasleak, lana tutorizatuko duen pertsonarekin ados jarrita, ikerketa-gaia aukeratzea; beraz, apika irakasleenak edota tartean sartuta dagoen sailarenak ez diren lehentasun eta sentsibilitateak barne hartuko dituzten gune irekiak dira.

8. Autonomia bultzatzea

GrAL eta MALek ikasleari erabakitzeke aukerak ematen dizkiote; horri esker, lanek ikaslearen interesak eta ikasleak egoera konplexuak ebazteke duen gaitasuna islatzen dituzte eta ikaslearen autonomia eraikitzen laguntzen dute. Ideia hori argi azaltzeko, Joseba Sainz de Murieta Mangado Bilboko Ingeniaritza Eskolako irakasle titularrak bere ikasleei esaten die GrAL eta MALak ikasle bakoitzak bere buruarekin sinatzen duen kontratua direla. Halere, esan beharra dago tutorizatzen duten pertsona guztiek ez dutela ikuspegi hori¹⁴. Horrelako jarrerak balio berezia dute hezkuntza-prozesua gaur egun gertatzen den testuinguruan; izan ere, hezkuntza-prozesua irakaslearengandik ikasleenganako ezagutzaren noranzko bakarreko transmisioan oinarritzen da oraindik, irakasleak bertaratu gabeko orduetan lan handia egin behar badu ere. Ikasleei MALak egiteko eta GrALak egiteko ematen zaien

14 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

autonomia ezberdina da; halere, GrALak erabakiak hartzeko eta arazoak ebazteko erronkari aurre egiteko pizgarria izan daitezke. Bestetik, garrantzitsua da seinalatzea goian azaldutako potentzialtasun gehienek (unibertsitatearen eta gizartearen arteko zubi-lanak egitea, sareak sortzea, arreta testuinguru espezifikoetan jartzea...) ikerketa-prozesuaren protagonista bilakatzen den ikaslearen inplikazioa eskatzen dutela.

9. Eremu akademikotik harago eragitea

UPV/EHUko Finantza Ekonomia I Saileko irakaslea den eta 2009tik 2017ra Gizarte Erantzukizuneko Zuzendaria izan zen Iratxe Amianok azpimarratzen du GrAL eta MALek inpaktu eraldatzailea dutela pertsonengan ere, munduari begiratzeko modua aldatzen dutela¹⁵. Eta hezkuntza eraldatzaileak, hain zuzen, aldaketa horiek bultzatzen ditu. Jakintza berriak bereganatze hutsa baino, gizarte-eraldaketarekin lotutako GrAL eta MALetan, ikasleei kontzientzia kritikoa zabaltzeko eta haien egunerokotasuna aldatzeko aukera ematen zaie, munduari begiratzeko modu berri horretatik abiatuta. Izan ere, ikasleen arten jasotako lekukotasunetan eta erantzunetan, ikasleek sarri aipatzen dute GrAL eta MALen eraginez, munduan egoteko modua aldatu dutela: «oraindik ere, nire GrALaz baliatzen naiz batzuetan, nire aingura da, gizarte-mugimenduen zereginera eta pentsamendu kritikora bideratzen nauena»¹⁶. Eremu akademikotik harago doan eraldaketa hori nekez gerta daiteke beste mota batzuetako GrAL edo MALetan, titulua eskuratzeko tramite soil bat bakarrik diren heinean.

10. Gizarte-eraldaketara bideratutako trebetasun profesionalak

Eremu akademikoan eta pertsonalean duten inpaktuaz gain, ezin dugu ahaztu mota honetako GrAL eta MALek ikasleen garapen profesionalean izan dezaketen oihartzuna. Prestakuntza-urte askoren ondoren, ezagutzak eta trebetasuna testuinguru definitu batean partekatzeko aukera dute ikasleek, gizarte-prozesu baten zerbitzura eta gizarte-eraldaketa helburu hartuta. Onuragarria litzateke ikasleei aukera hori graduko irakasgai batean eta azkenekoan, gainera, bakarrik ez eskaintzea. ISF-MGIko kideek, gure hezkuntza-prozesuetan ikusi dugu, testuingurua alde batera utzita, jakintza teknikoak indartzeko joera dela nagusi, helburuak zalantzan jarri gabe eta aplikazioek ingurumenean eta gizartean eragiten dituzten ondorioen gainean hausnartu gabe. Gizarte-eraldaketarako GrAL edo MALa egitean, ikasleak dimentsio horiei aurrez aurre begiratu ahal izango die eta prozesuan ematen diren pauso guztien subjektu aktiboa izango da.

¹⁵ Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

¹⁶ 2019ko ekainaren 10ean, ISF-MGIk ikasleekin antolatu zuen topaketan (Gizarte eraldaketarako GrALen esperientziak partekatzen) partekatutako lekukotasunetatik.

2. 3. GrAL eta MALen potentziala indartzen duten esperientziak

Goian gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen hainbat potentzialtasun azaldu ahal izan ditugu, hein batean, gaitasun horiek neurri batean edo bestean garatzen saiatzen diren esperientziak daudelako. Kopuruari erreparatuta, nahiz eta GrAL edo MAL gehienak oraindik konbentzionalak izan, beharrezkoa iruditzen zaigu beste GrAL eta MAL mota batzuk sustatzen ahalegintzen diren esperientziak aipatzea.

Jarraian, UPV/EHU barruan sortu diren ekimen batzuk laburki azalduko ditugu: GrAL eta MAL-etan gizarte-eraldaketarako nolabaiteko potentziala ikusi dute eta horri etekina ateratzeko lan egiten dute. Zehazki, GrAL eta MAL konbentzionalenetatik urruntzeko apustu interesagarriak egiten dituzten ekimenen ezaugarrietan jarriko dugu arreta. Argi utzi nahi dugu zerrenda hori ez dela GrAL eta MALei balioa eranstean dieten UPV/EHUko esperientzia guztien erregistro zehatza; denbora eta baliabide mugatuak genituenez, ezin izan ditugu esperientzia guztiak sartu eta ekimen aipagarri batzuk kanpo gelditu dira, besteak beste Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoa¹⁷ edo IKD-Gazte¹⁸. Gure zerrenda unibertsitateko instantzietatik, nagusiki Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzatik, bultzatutako esperientziekin hasiko dugu, eta gizarte-erakundeek dinamizatzen dituzten ekimenekin amaituko dugu.

Gaztenpatia

2016an hasi zen proiektua¹⁹, 2003tik UPV/EHUK, Garapenerako Lankidetzaren Bulegoaren bitartez, bultzatzen duen Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak eta gradu amaierako lanak programaren barruan. Gaztenpatiari esker, UPV/EHUK eta Euskal Fondoak (Lankidetzarako Tokiko Erakundeen Elkarteak) praktikak edo GrALa garapenerako lankidetzaren proiektu batean oinarrituta egiteko aukera eskaintzen dute, batik bat, Erdialdeko Amerikako herrialdeetan. Ekimenak lankideekin harreman egonkorra sortzea sustatzen du; eta, horri esker, prozesuen segida eta ikerketa-lanen arteko lotura hobetzea lortzen da. Gainera, kulturarteko topaketak antolatzen dira, non programaren esparruan egindako lanak komunikatzeaz eta hedatzeaz gain, ikasleen eta programan parte hartzen duten eragile ezberdinen arteko elkarrizketa-guneak bultzatzen diren.

Gaztenpatian parte hartzeko, ikasleek unibertsitateak eskaintzen duen Garapenera eta lankidetzari buruzko ikastaro monografikoa egin behar dute. Ikastaro hori ikaslea testuinguruan kokatzeko eta prestatzeko ariketa garrantzitsua da, eta karreraren zehar agian eskaini ez dizkioten hainbat tresna emango dizkio.

17 <https://www.ehu.eus/eu/web/zuzenbide/gzkj> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

18 <https://www.ehu.eus/eu/web/ikdgazte/home> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

19 <https://www.ehu.eus/eu/web/oficop/gaztenpatia> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

Campus Bizia Lab

Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzaren menpeko Iraunkortasunaren arloko zuzendaritzak eta Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak eskaintzen duten programa hau 20 unibertsitate barruko jasangarritasun-erronkei erantzuna ematen saiatzen da, eragile ezberdinen (irakasleak, ikasleak, administrazio- eta zerbitzu-langileak) arteko lankidetzaren prozesu bat dinamizatuz. GrAL eta MALak programa honen barruan egiten direnean, alde batetik, ikerketek unibertsitateko praktiken jasangarritasuna hobetzen dute eta, bestetik, ikerketek programak bultzatzen duen ikaskuntza transdiziplinarraren onura jasotzen dute.

Neurri handi batean, programak ahalegin handia egiten du diziplina ezberdinetako eragileen artean sinergiak sortzeko eta artikulatzeko nodo gisa. Sailarteko harremanak sortu ohi ez diren testuinguru batean, urratsak egin dira irakasleek elkar ezagutu dezaten eta elkarlanean aritzeko proiektuak aurki ditzaten. Goian esan dugu oso garrantzitsua dela begirada transdiziplinarrak dituzten ikerketak egitea. Hala, Campus Bizia Lab hori egiten ahalegintzeko gune interesagarria da. Orobat, benetako eta hurbileko testuinguru baten gainean lan egiteak (unibertsitate barruan jasangarritasuna hobetzea) ikerketa- eta ekintza-prozesu jakin batzuk bultzatzen ditu, GrAL zein MAL horien emaitzak UPV/EHU bera eraldatzeko baliagarriak direlako.

Estíbaliz Sáez de Cámara UPV/EHUren iraunkortasunaren arloko zuzendariak nabarmentzen du gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen sorrera bultzatzen duten ekimenen arteko elkarrizketa indartu behar dela²¹. Eta horregatik, hain zuzen, Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzak UPV/EHUko ikasleen biltzarra²² abiatu du. Lehen biltzarra 2018ko urrian egin zen. Ekimenak diziplina oso ezberdinetan lan egiten duten ikasleen, berdin dio azaldu-tako programetan parte hartu duten ala ez, arteko elkarrizketa eta artikulazioa sustatzen du, ardatz egituratzailea 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorraren Helburuak izaki²³.

Berdintasunerako Zuzendaritzak ematen dituen María Goyri eta Francisca de Aculodi sariak

Genero-ikuspegiaren aplikazioan nabarmentzen diren ikerketa-lanak ikusarazteko helburuaz, Berdintasunerako Zuzendaritzak, urtero, GrAL eta MAL aipagarrienak saritzen ditu. 2013/14 ikasturtetik, Francisca de Aculodi²⁴ saria jasotzen dute, jakintza-eremu anitzetan (arteak eta humanitateak, zientzia esperimentalak, osasun-zientziak, gizarte- eta zuzenbide-zientziak, ingeniariak eta arkitektura), gene-

20 <https://www.ehu.es/eu/web/iraunkortasuna/campus-bizia-lab> [Azken kontsulta: 2020/01/16].

21 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

22 Ikasleen biltzarra: Gure Gradu Amaierako Lanek (GrAL) mundua aldatzeko balio dute. Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.es/eu/web/berrikuntza-gizarte-konpromiso-eta-kulturgintza-errektoreordetza/upv-ehuko-ikasleen-batzarra> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

23 <https://www.ehu.es/eu/web/berrikuntza-gizarte-konpromiso-eta-kulturgintza-errektoreordetza/upv-ehuko-ikasleen-batzarra/2030-agenda>

24 <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/francisca-de-aculodi-saria>

ro-ikuspegia txertatzeagatik nabarmentzen diren GrALek. Era berean, María Goyri²⁵ sariak MAL aipagarrienak saritzen dituzte 2011/12 ikasturtetik.

Sarira aurkezteko ezinbesteko baldintza da ikerketa idazterakoan hizkuntza inklusiboa erabiltzea; eta ikerketa osoan zehar sexu-aldagaia txertatzea baloratuko da, bai eta «genero analisia edota gai feministak aztertzea» ere. Leire Imaz UPV/EHUko Berdintasunerako zuzendariak dioenez, eraldaketa bultzatzen duten eta, beste batzuek ez bezala, haien GrAL edo MALak gizarteari ekarpen bat egiteko erabiltzen dituzten ikasleen lanak aitortu eta ikusarazteko saria da²⁶. Sari-deialdi horiek bultzatzen duten ikusgarritasunari esker, inpaktu positiboa lortzen da hainbat alderditan: jardunbide egokiak identifikatzea ahalbidetzen duten erreferenteak aurkitzea, etorkizuneko ikerketa-lerroak identifikatzea edota zentro eta sail ezberdinak elkarren artean konektatzea, lanak zuzentzen dituzten irakasleak genero-ikuspegia txertatzearen alde apustu egiten duten ikerketetan inplikatzeko dituztelako.

Hegoa Institutuaren Hezkuntza taldeak bultzatutako ekimenak

Gizarte-eraldaketarekin konprometituta dagoen unibertsitate bat lortze aldera, eztabaida eta eraikuntza kolektiborako parte-hartze guneak sortzeko, Hegoa Institutuaren Hezkuntza taldeak²⁷, 2018/19 ikasturtean, GrAL eta MALak hezkuntza-ikuspegi kritiko eta emantzipatzaile batetik egiteko ikasleei laguntza eta orientazioa emateko mintegiak antolatu zituen. Batez ere, graduako eta graduondoko ikasleei zuzendutako ekimena izan zen, baina hezkuntza kritiko eta emantzipatzailetik proposatutako ikuspegiaren interesa zuten unibertsitateko irakasleek, GGKEek eta gizarte-kolektiboek ere parte hartu zuten.

GrAL eta MALen bidez gizarte-problematikari erantzuten dien jakintza kritiko bat sortzeko eta zabaltzeko xedearekin, eragile anitzen arteko talde-lana sustatu zen, ikasleek aurkeztutako ikerketa-proposamenetan hezkuntza kritiko eta emantzipatzailearen ikuspegia txertatzeko. Enpresaren presentzia gero eta nabarmenagoa duen unibertsitate-testuinguruan, bereziki baliotsua da gizarte-eraldaketarako eza-gutza erabilgarria sortzen duten tresnak sozializatze guneak eraikitzea.

Unibertsitate Kritiko Sarea (UKS)

UKS²⁸ sarea UPV/EHUko, GGKEetako eta Gipuzkoako gizarte-mugimenduetako ki-deek osatzen dute. 2013an sortu zen unibertsitate-komunitateak justizia sozialaren eta jasangarritasunaren alde lan egitea bultzatzeko. Sareak elkartasunarekin, justizia sozialarekin, giza eskubideekin eta genero-ekitatearekin lotutako eza-gutza,

25 Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.eus/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/maria-goyri-saria> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

26 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

27 Eskuragarri hemen: http://www.hegoa.ehu.es/eu/educacion/que_es_la_educacion_para_el_desarrollo3 [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

28 Eskuragarri hemen: <http://www.uks.eus/> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

gaitasunak, balioak eta jarrerak garatzea sustatzen du, hori guztia lurraldeko elkar-
tegitzatik sortutako metodologia baten bitartez.

UKSk 2017an antolatu zuen bosgarren topaketan argi gelditu zen gizarte-eraldake-
tarako GrALen aldeko apustua, non GrALak GKEak, ikasleak eta irakasleak triangu-
latzeko tresna gisa definitu baitziren, eragile ezberdinak unibertsitate publikoaren
eraldaketarekin konprometitzeko eta, hala, unibertsitateak justizia sozialarekin
duen konpromisoa sendotzeko. UKS GrALetan ikuspegi hori nola txertatu hausnar-
tzen hasia da; hortaz, gune baliotsua da oso unibertsitatearen eta gizarte-eragileen
artean gizarte-eraldaketarako elkarriketa pizteko, diziplinarteko begiradak eta tes-
tuinguru mugatuak oinarri hartuta.

EMAUS Gizarte Fundazioa

Ekimuin proiektuaren bidez²⁹, Emaus Gizarte Fundazioak unibertsitate-eredu eral-
datzaile baten sorrera bultzatzen du, ekonomia sozial eta solidarioaren esparruan.
2011z geroztik, sarean lan egiten du beste eragile unibertsitario, sozial, ekonomiko
eta politikoekin, esperientzia praktikoak konektatuz eta erreferentziako hiru eus-
kal unibertsitateetako heziketa-gunetan ekonomia sozial eta solidarioaren balioak
sustatuz. EMAUS Gizarte Fundazioa taldeko Amaia Ibarrondok dioenez, erakundeak
bere lan-eremuan duen posizionamenduari eta ikusgaitasunari esker, gizareratzea
sustatzeko, ekonomia sozial eta solidarioaren munduan inplikatzeko gogoz dauden
ikasle eta irakasleengan interesa piztea lortu dute³⁰.

Halaber, estrategia horrek GrAL edota MALak gizarte-eraldaketaren ikuspegitik
idaztea barne hartzen du. Ibarrondoren iritziz, unibertsitatearen gizarte-eginkizu-
na gauzatzeko komenigarriena da lehendik dauden egiturak eta prozesuak (hala
nola praktikak, GrAL eta MALak) aprobeztatzea. Ildo horretan, hauxe dio egileak:
«Gertuko etorkizun batean, gizarte-arazoak konpontzeko hiru tresna hauek modu
koordinatuan bideratzeko gai bagara, tresna indartsuak bihur daitezke, ez tresna
konpontzaileak bakarrik, ingurunearen eta unibertsitatearen gizarte-errealitatearen
arteko konexio-tresnak baizik» (EMAUS, 2017:18).

Mugarik Gabeko Ingeniaritza (ISF-MGI)

Goian aipatutako hainbat ekimenetan parte hartzeaz gain, ISF-MGI³¹ gizarte-eral-
daketan inplikaturik dauden GrAL eta MALak idazteko lan propioa egiten dugu ere.
Hezkuntza eraldatzaileko guneak sortzearen alde apustu egiten dugunez, GrAL
eta MALak gizartearentzako tresna erabilgarriak izan daitezen laguntzen dugu: ikas-
taro monografikoak diseinatzen eta antolatzen ditugu, gure gizarte-oinarriak eta
erakunde aliatuek (El Salvadorreko ADES Santa Marta, besteak beste) proposatu-
tako ikerketa-gaiak zabaltzen ditugu, lanetan ikuspegi kritiko eta transdiziplinarra

29 Eskuragarri hemen:

<https://www.emaus.com/informate/notas-de-prensa/18-notas-de-prensa/notas-de-prensa-empresa/300-emaus-fundacion-social-trabaja-en-favor-de-una-universidad-transformadora-y-solidaria> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

30 Lan-koaderno honetarako egindako elkarriketa batetik.

31 Eskuragarri hemen: <https://euskadi.isf.es/?lang=eu> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

txertatzen laguntzen dugu, ikerketa-metodologia feministak aplikatzeko tresnak sortzen ditugu, eragile ezberdinak elkartzeko topaguneak dinamizatzen ditugu esperientziak partekatzeko eta gure jardunbideak hobetzeko, masterrekin lankidetzan aritzen gara, eta abar.

Nazioarteko lankidetzaren arloko GrAL eta MALen kasuan, bereziki aipagarria da ADES erakundearekin egiten den lan-talde horizontala. Lurralde-defentsaria eta ADES erakundeko presidentea den Vidalina Moralesek azpimarratzen du oso garrantzitsua dela ikasleari bidaia egin aurretik eta bidaian zehar laguntzea: horrela, egokitzapena samurragoa izango da eta helmugako testuingurua eta prozesuak hobeto ulertuko ditu³².

Aipagarria da, adibide gisa, Bilboko Ingeniaritza Eskolako ikasle-talde batek mar-txan jarri zuen FreeJaus ekimenaren testuinguruan ikasleei eskainitako laguntza. Ikasle-elkarte hori ikaskuntza kooperatiborako gune gisa sortu zen, non ikasleak heziketa- eta ikerketa-prozesuen (GrALak idazteko laguntza barne) gidaritza hartzen baitzuen, ahalduntzea, parte-hartzea eta unibertsitate barruko eta kanpoko eragileen arteko lankidetzak sustatzeko helburuarekin.

Zientzia eta teknologia eremu neutrotzat jotzen diren eta alderdi teknikoak sozialak baino gehiago baloratzen diren testuinguruan, ISF-MGIIn ahalegin handia egiten dugu laguntzen ditugun GrAL eta MALek logika hori apur dezaten. GrAL eta MALak gizarte-prozesuen zerbitzura jarri nahi ditugu, lurraldeen eskakizunetan txertatu nahi ditugu, tartean sartuta dauden herritarrak ikerketa-prozesuaren subjektu aktibo izan daitezen.

2.4. GrAL eta MALen potentzial eraldatzailearen mugak

GrAL eta MALek gizarte-eraldaketarako tresna gisa duten potentziala ahalik eta gehien aprobetxatzeko apustu egiten dugunez, ezin ditugu alde batera utzi bidean aurki ditzakegun oztopoak. Gaur egun GrAL eta MALek dituzten problematikak eta mugak seinatzen ez baditugu, ezingo dugu diseinatu etorkizuneko erronka konplexuei aurre egiteko hobekuntza-proposamenik.

Gaur egungo GrAL eta MALen ikuskerak berez ezartzen dituen mugak aztertu baino lehen, garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea gure munduan nagusi den eredu sozioekonomikoak ere GrAL eta MALak gizarte-eraldaketarako tresna bihurtzeko ahalegina eragotz dezakeela. Testuinguruaren azterketa azkarra egiten badugu, ikusiko dugu eremu akademikoa konplexua dela eta konplexutasun horrek, era berean, GrAL eta MALen izaera baldintzatzen duela.

Alde batetik, pentsamendu neoliberalaren indar hegemonikoak **sistema kapitalistaren** azken bertsioa zabaltzea lortu du, hainbestera, non gure jakintza-eredua eta haren inguruan eraikitako egitura guztiak baldintzatu dituen. Eredu hori naturalizatzen dugunean, inplizituki, beharrezkoa den zalantzan jartze eta eztabaida etengabeari uko egiten diogu, eta, nahi ez badugu ere, ereduaren izaera unibertsala sustatzen dugu.

32 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

Bestetik, mendebaldeko akademiaren jardunbideei leporatu zaien **jakintzaren kolonialitatea** aipatu beharra dago. Edgardo Lander (2010:23) soziologoak mendebaldeko akademiari «kultura eta herri guztiak eremu primitibotik, tradizionaletik modernora eramaten dituen metakontakizun unibertsal baten existentzia» leporatzen dio. Horren ondorioz, gizarte liberala arau unibertsal bihurtzen da, hau da, kultura eta herri guztiek izan dezaketen etorkizun bakarra. Era berean, Europako historiaren izaera unibertsaletik abiatuta, gizarte liberalak interpretatzeko sortu ditugun ezagutza motak dira ezagutza objektibo eta onargarri bakarrak, eta beste gizarte batzuen hutsuneak edota atzerapenak antzemateko patroï gisa erabiltzen ditugu.

Azkenik, lankidetzarekin lotutako gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALei bereziki eragiten dien beste problematika garrantzitsu bat goian aipatutako botere-egiturek sustatzen duten **Ipar-Hego logika** da. Ildo horretan, gizarte-praktikak hegoetan eta pentsamendu teorikoa iparretan gertatzen direla (Medina, 2019:115) sinesten hasiak gara eta, azkenean, ideia hori ikerketa ulertzeko moduan islatuko da. Eremu horretan, *hegoetako* komunitateek ikerketa-prozesuen diseinuan eta prestakuntzan izan dezaketen rola mugatu egiten da, elkarrizketa horizontaletik eta subjektu aktiboen eraikuntzatik aldentutako jardunbideak sortzen dira eta, aldi berean, ezagutzaren noranzko bakarreko transmisioa sustatzen da.

Oro har, akademiak ez du momentu historiko eta gune geografiko jakin batean sortu eta finkatu zen eta gizarte kolonialek unibertsalizatu zuten **pentsamendu hegemonikoaren** eraginetik at jotzen. Horren ondorioz, ahots gutxi batzuek (goi-klaseko gizon akademiko zuriak eskuarki) monopolizatutako pentsamendu bat eraikitzen da beti. Pentsamendu hori zuzentzat aurkezten denez, zaila da norberaren sesgoak onartzeko ariketa kritikoa egitea, ikertzeko beste modu batzuk aintzat hartzea edo ikertzailearen eta ikertuaren arteko harremanak nola eraikitzen diren berrikustea. GrAL eta MALen idazketa barne hartzen duen ikerketa akademikoak bide luzea du aurretik ikerketaren subjektua benetako subjektutzat eta ez objektutzat jotzera iristeko. Aurrerago, 3. atalean, eztabaida horretan eta metodologia feministek behingoz harresi hori eraisteko egiten dituzten proposamenetan sakonduko dugu. Begirada zabaltzea eta pentsamendu hegemonikoaren ondorio diren norberaren sesgoak onartzea nahitaezko lehen urratsa dira, Sandra Fernández Cebrián *Aplicación del Enfoque de Género en los TFG y TFM* eskuliburuaren egilekideak dionez: «zure mundu-ikuskera ez da onena, zurea baizik»³³.

Azkenean, aipatu ditugun gizarte-egiturek GrAL eta MALen izaerari eragiten diote, akademia eta ikerketa ulertzeko modua baldintzatzen dituztelako. Jarraian, **GrAL eta MALen muga propioetan** jarriko dugu arreta, elkarrizketa, galdeketa edo topaketen bidez, ikerketan parte hartu duten pertsonen adierazitako iritziak oinarri hartuta.

Nahitaezko banakotasuna

Begirada kritikoa egiten badiegu, GrAL edo MAL proiektuen ezaugarri eztabaidagarrirenetako bat lanak banaka egiteko obligazioa da. GrAL eta MALak egiteko autonomia jakin bat eskatzen da, eta kasu batzuetan aurreko 3 urteak ez dira nahikoak autonomia hori garatzeko. Gidaritza eta muga argiekin lan egitetik mugimendu-askatasunarekin lan egitera salto egiten duten ikasleek, batzuetan, ez dituzte irismen honetako ikerketa bati aurre egiteko behar diren tresna guztiak eta, ondorioz, litekeena da laguntza gehiago behar izatea (ez bakarrik eremu akademikoan). Egin

33 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

ditugun galdeketen emaitzen arabera, irakasle-tutoreei eman dezaketena baino askoz gehiago eskatzen zaie sarri. Guztiz ulergarria da ikasleek fase horretan laguntza behar izatea; horregatik, soluzio ona izango litzateke proiektu kolektiboak egitea, egileari segurtasuna eta aberastasuna, taldeari eraginkortasuna eta sormena eta ikerketei ahalmen handiagoa gehitzeko.

Bestalde, bermatu beharko litzateke proiektuek, eraikuntza kolektiboak izateaz gain, gradu ezberdinetako ikasleak elkartzea. Campus Bizia Lab eta antzeko programak martxan badaude ere, oro har, ez da ahaleginik egiten GrAL eta MALetan hori bermatzeko. Ikasleak esparru bereko tutore akademiko batekin bakarrik lan egiten duenez, agian ez da bere begiradaren sesgoaz eta horrek dakartzan mugez ohartuko, generoan eta sexu-aniztasunean aditua den Fernando Altamira Basterretxea kontsultoreak dioenez, «zure parekoekin bakarrik hitz egiten baduzu, zure bizitza-ikuskeraren parekoa izango da»³⁴.

Lan-karga handiagoa ikasleentzat

Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALetan ikasleek aparteko errokei eta lanei egin behar diete aurre. Proiektua garatzean ez dute besteek baino lan gehiagorik egin behar, baina proiektuaren garapen bera bezain garrantzitsua eta neketsua, edo are garrantzitsuagoa eta neketsuagoa den atariko fasean bai. Atariko fasean, ikasleek introspektzio-lana egin eta eraldatu nahi duten errealitatea aztertu behar dute. Fase horretan, ikasleek entzun beharra daukate, eta nork, zer, zergatik eta nola hausnartu; galdera horiei erantzuteko prestatu eta ahalegindu behar dira, protagonisten begirada ezberdinak kontuan hartuta; planteatzen diren soluzioek eragin ditzaketen ondorioen gainean hausnartu behar dute, eta beste hainbeste. Horretarako denbora gehiago behar denez eta lan-karga handiagoa denez, irakasle zein ikasleek zailtasun gehiago topatzen dituzte; baina, askotan, zailtasun horiek ez dira agerian jartzen, ezta aintzat hartzen ere.

Adibidez, irakasleek metodologia berriak erabili nahi dituztenean, lanordu gehiago egin behar dituzte eta ikasleei lan gehiago egiteko eskatu behar diete eta, horren ondorioz, ikasleek are denbora gutxiago dute GrAL eta MALak idazteko. Bestetik, eraldaketa bultzatzen duten proiektuetan, epeak jartzea zaila izan daiteke, gizarte-prozesuak motelak direlako eta komunitateen erritmoak ez datozelako bat unibertsitateko erritmoekin. Gainera, hirugarrenen ahotsak txertatzen direnean, komunikazioa moteldu egiten da, prozedurak konplexuagoak dira eta prozesua luza daiteke. Prozesu horiek azkarragoak, biribilagoak eta eraldatzaileagoak izango lirakeke ikasleek ez balituzkete proiektuak hutsetik hasi behar edota proiektuen jarraipena errazteko elkartasunak eraikiko balira; horrela, prozesuak denboran zehar luzatuko lirakeke, GrAL edo MALa egiteko aukeratutako lauhilekoaren ondoren amaitu beharrean.

Azkenik, irakasleek adierazten dute, batzuetan, zaila dela interesa duten eta lan horiei behar duten *osagai berezia* gehitzea baloratzen edo ahalbidetzen duten irakasle kualifikatuak aurkitzea; eta zailtasun horrek ere prozesua luzatzen du.

34 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

Irakasleen denbora falta

Irakasle guztiek ezin dute beren gain hartu gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak tutorizatzeke lan osagarria, nahiz eta mota horretako proiektuak haien interes eta asmoekin bat etorri. Hortaz, irakasleek beren oldez hartu behar dute inplikatzeko erabakia; jarraian ikusiko dugun bezala, unibertsitateak ez dielako eskatzen mota horretako ikerketak tutorizatzea, ez eta lanek eskatzen duten ahalegina aitortzen ere. Gogoan hartu behar dugu, unibertsitatearen joera kapitalista eta meritokratiakoarekin, irakaskuntza ikerketaren aurrean indarra galtzen ari dela, eta irakasleen karrera akademikoan ikerketa-merituak irakaskuntza-merituak baino askoz gehiago baloratzen dira. Horri GrALak tutorizatzeagatik irakasleak gain hartzen duen lan-kargaren aitortpen kaskarra (0,25-0,5 ECTS kreditu, unibertsitatearen arabera) gehitzen badiogu, oso zaila da GrALetan behar-beharrezkotik harago inplikatzeko irakasle motibatuak aurkitzea (Battaner *et al.*, 2016), galdeketetan ikasleek salatzen duten bezala.

Izan ere, irakasleei gizarte-eraldaketarako GrALak zuzentzeko zailtasunen gainean galdetu diegunean, honako erantzun hauek jaso ditugu sarri: «ezagutza falta», «denbora falta», «lan-karga handia», «ikasleari eskaini beharreko denboraren eta GrALaren aitortpen ofizialaren arteko harreman kaskarra», «tutorizatu beharreko GrALen kopurua eta aitortpen eskasa», «irakasleen gainkarga», eta abar.

Ez dugu ahaztu behar, titulazio gehienetan, duela gutxi hasi direla GrALak egiten-titulazio guztietan, karrera-amaierako proiektuak zituzten ingeniartzetan eta arkitekturan izan ezik; eta nobedade horrek irakasleen lan-karga areagotu egin du, irakaskuntza-mailan ez ezik, kudeaketa-mailan ere, neurri txikiagoan bada ere.

Denbora falta hori unibertsitatearen inposizio berri batekin ere erlazionatuta dago: hainbat egileren ustez, gaur egun, irakasleak «subjektu akademiko neoliberal» (Saura *et al.*, 2019) bihurtu dira. Hala definitutako irakasleak, askatasunez jokatzeko dutela uste badute ere, gobernantza-modu bigunen, ezagutza-botere harreman berrien (rankingak eta ebaluazioak) eta digitalizazio-prozesuen (bibliometria, inpaktuak) bidez menderatuta daude; eta horrek subjektibitate akademiko berriak eragin ditu hil ala publikatu filosofia duen munduan bizirik irauteko.

Ikasleen prestakuntza

GrAL eta MALak egitean espero da ikasleak ikasketetan zehar bereganatutako tresnak erabiltzen ikastea eta tresna horiek aplikatzen hastea ikerketa-helburuetarako erantzun egokia aurkitzeko. Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak egiteko, aldiz, graduoko eta graduondoko urteetan zehar beti eskaintzen ez diren tresna kontzeptual eta metodologiko jakin batzuk behar dira. Hala, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak egin dituzten ikasleen esperientzia ezagutzeko ISF-MGIk antolatu dituen topaketetan ikusi dugu ikasle guztiek sentsazio bera dutela: karreraren zehar ez dizkietela eskaini ezaugarri hauetako lan bati heltzeko behar diren tresnak.

Halere, ondorio irmoagoak atera ahal izateko, gradu eta graduondoko bakoitzaren curriculum-programak banaka aztertu beharko genituzke. UPV/EHUko Gizarte Laneko graduari dagokionez, 2015ean Sandra Clementek gradu amaierako lan bat egin zuen, Rakel Oión Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultateko irakaslearen zuzendaritzapean, non titulazio horretako ikasketa-planek garapenerako lankidetzarekin lotutako kontzeptuak barne hartzen ote dituzten ebaluatzen den. Planek hainbat kontzeptu basiko barne hartzen ote zituzten aztertu ondoren, Clementek hauxe ondorioztatzen du: «lankidetzaren ikasketa-planetako lan-eremu berri gisa

agertzen da, baina ez da zeharkako gaitasunetan islatzen, eta ez dago gaia berariaz jorratzen duen irakasgairik. Beraz, sumatzen dugu lankidetzaren gaia ez dela garrantu irakasgaien ikasketa-planaren barruan». Horrelako egoerek erakusten dute lan eskergea dugula aurretik ikasketa-planak eta gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak paraleloan eboluziona ez dezaten.

Berariaz, errealitatearen aurrean ikuspegi feminista izateko eskaintzen diren tresnei erreparatuta, sumatzen dugu egoera antzekoa dela. Lankidetzeta eta garapen gaietan aditua den María Viadero ikertzaile feministak dioenez, ikasleak ez badu sentsibilitate feminista bereganatu eta ez badu berariazko heziketa feminista jaso, gaur egun unibertsitateak ez ditu eskaintzen begirada hori txertatu ahal izateko tresnak³⁵. Horiek horrela, ikasle, irakasle edo gizarte-erakundeei dagokie gaitetara hurbiltzeko eta haietan sakontzeko ahalegina egitea, ikuspegi feminista bermatzen duten ikerketak egin ahal izateko.

Bestetik, badaude beste hainbat espazio ireki borondatez parte hartu nahi duten ikasle guztientzat, non ikasleek eremu horietako heziketan sakontzeko aukera duten. Horien artean, nabarmentzekoak dira OFICOPek antolatzen dituen lankidetzaren kontzeptu orokorren gaineko ikastaro monografikoak (aurrez aurre edo online); titulazio guztietako graduako ikasleei eskaintzen zaizkie curriculumetik kanpoko prestakuntza osagarri gisa. Ikastaro horiek oso onuragarriak iruditzen zaizkigun arren, uste dugu zabaldu egin beharko lirakeela, gizarte-eraldaketarako proiektuak egin ahal izateko heziketa etengabea eta sakona behar delako.

Eta, finean, ikastaro horiek, Garapenerako Lankidetzaren inguruko unibertsitate-praktikak eta gradu amaierako lanak programaren barruan, GrALa egiteko Hegoalde globaleko herrialde batera bidaiatuko duten ikasleek bete beharreko betekizun bat besterik ez dira³⁶. Horregatik, unibertsitateak lankidetzarekin eta gizarte-eraldaketaren beste hainbat esparruekin lotura duten gradu guztietako ikasleentzat ikastaro irekiak sustatzeko ahalegin handiagoa egin badu ere, ezin dugu ahaztu ikastaro horiek prestakuntza osagarria direla eta, ondorioz, ez direla programa akademiko ofizialetan sartzen.

Irakasleen prestakuntza

Lehen esan dugun bezala, errealitateak eraldatzea helburu duten proiektuetan lan egiteko, ikasleak GrAL edo MALa gai horietara bideratu nahi duelako edo irakasleak mota horretako lanak tutorizatu nahi dituelako, lehenengo, hainbat gaien (giza eskubideak, jasangarritasuna eta feminismoak, besteak beste) inguruko prestakuntza behar da, bai eta aztertu nahi diren testuinguruen gaineko berariazko prestakuntza sakonagoa ere.

Irakasleen prestakuntzari dagokionez, UPV/EHU berak eta hainbat erakundek ikastaroak eskaintzen dituzte, Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuaren (SAE-HELAZ) Unibertsitateko irakasleen irakas-prestakuntza (UIPRE) programaren barruan. UIPRE programaren barruan sartzen diren ikastaroek bakarrik puntuatzen dute irakasle eta ikertzaile izateko meritua gisa; unibertsitateak horiek bakarrik onartzen ditu. Eremu honetan aurrerapausoak eman badira ere, elkarrizketatu ditugun hainbat

35 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

36 Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.es/es/web/oficop/programa-praktikoa-eta-kap> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

irakaslek gai anitzagoak jorratzea eta gaur egungo menderatze-sistemen oinarrian dauden egiturazko sustraietan gehiago sakontzea eskatzen dute.

Goiko atalean azpimarratu dugun bezala, interesa duten pertsonen esku, kasu honetan irakasleen esku, dago prestakuntza hori jasotzea edo ez jasotzea. Gainera, lehen aipatu dugun lan-karga handia kontuan hartuta, oraingoa ez dirudi egoera egokiena unibertsitateko irakasleek pentsamendu kritikoaren gaineko prestakuntza jasotzen dutela bermatzeko.

Ebaluazio-mekanismoak

Egin ditugun galdeketetan, ikasleak, oro har, kezkatuta agertu dira lanak baloratzen dituzten epaimahaiekin. Zenbaitetan, gaiarekiko ezjakintasunak eta ebaluazio-metodologiek epaimahaiaren ahalmena mugatzen dute; ebaluazio-parametroak ez dira ondo egokitzen mota honetako GrAL eta MALek aztertzen dituzten kultura, inguru eta egoeretara eta, ondorioz, ez dute balio egindako lana behar bezala ebaluatzeko eta aintzat hartzeko. Izan ere, kasu hauetan, ikasleek egindako ahalegin guztiak baloratzen ez dituenek, unibertsitateak lan batzuk zigortu egiten ditu, bereziki karrera teknikoetako GrAL eta MALetan, prestakuntza espezifikora bideratutako ikerketa batean hertsiki arreta jarri ordez, harago joan direlako eta egoera soziopolitikoak edo testuinguruak aztertu dituztelako.

Bestalde, ebaluatzeko modu ezberdinei dagokienez, kasuistika ugari daude. Zentro batzuetan epaimahai bakoitzak erabakitzen du zer egin, beste batzuetan ebaluazio-matrize bakarra erabiltzen da. Adibidez, Bilboko Ingeniaritza Eskolak, eskolabatzarrean adostu zuen gradu guztietarako matrize bera erabiltzea; eta matrize horrek ez zuen GrALen alderdi sozialak ebaluatzeko ezein adierazlerik barne hartzen. Nolanahi ere, ahozko aurkezpenari garrantzi handia ematen zaio lanen defentsan, eta hori erabakigarria izan daiteke azken kalifikazioari begira. Komunikazioari dagokionez, generoaren arabera sozioalizazio ezberdina kontuan hartzen badugu, «komunikazio gaitasun» mailara igo den komunikazio-arau maskulinoa neurtzeko kanatzat hartzen bada, hainbat emakume ikasle desabantailan egongo dira (Bengoetxea, 2014). Aipatutako mekanismoei zentroen curriculum ezkutuetan gehitzen badizkiegu, litekeena da unibertsitatean modu desberdinean baloratzea akademiatik ingurune bat eraldatzen ahalegintzen diren ikasleen lana eta, bereziki, emakume ikasleen lana.

Genero-ikuspegia, hautazko erabakia

GrAL eta MALak eraldaketarako tresna bihur daitezten, lanak gizartearekin uztartzea ezin da betekizun bakarra izan. Proiektu horien helburua, aldaketa politikoa eta subjektu zapalduen emantzipazioa lortzeko, diskriminazioak eta haien sorburuak murriztea da. Horretarako, ezinbestekoa da, lehendabizi, ikerketetan zuzenean edo zeharka nahasita dauden pertsonen heterogeneotasuna eta haien gorputzek jasaten dituzten zapalkuntza anitzak kontuan hartzen dituen errealitateen diagnostiko bat egin behar da.

Oraindik ez dago horrelako garrantzia duten azterketek genero-ikuspegia txertatzea bermatzeko ezein araurik, azterketaren jakintza-arloa zein den ere. Gaur egun, UPV/

EHUren zentro gehienek ez dute arautzen, behintzat, mota honetako proiektuen genero-inplikazioa aintzat hartzeko beharra; ordea, ondo araututa dago eta, beraz, zigortu daiteke, bibliografian obren argitalpen-urtea parentesi artean ez jartzea.

Gure ustez, genero-ikuspegia hautazko jarrera metodologikotzat jotzen jarraitzeak errealitatea ikusteko begirada partziala eragiten du eta, ondorioz, errealitate horretako dinamika asko ikusezin bihurtzen ditu. Ikerketa-metodologia feministekin lan egitea zein garrantzitsua den ulertarazteko, hurrengo atalean, metodologia feministen kontzeptu orokorrak azaldu eta horiek aplikatzeko lagungarri batzuk emango ditugu.

3. Metodologia feministak: gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak egiteko tresna

3.1. Hitzaurrea eta atalaren helburua

2015ean, ISF-MGIk *Genero ikuspegiaren aplikazioa GrAL eta MAL proiektuetan* lan-koaderno argitaratu zuen, ikerketa-lanak genero-ikuspegia txertatuta egiteko gida. Bost urte igaro dira ordutik eta orain, aurrerapauso bat eman nahi dugu ikuspegi feminista ikerketan modu integralen aplikatuz. Ildo horretan, Marta Luxánen³⁷ hausnarketa aintzat hartzen dugu: *genero-ikuspegia* terminoa despolitizatu egin da, instituzionalizatu egin delako eta, batzuetan, modu hutsalean erabiltzen da. Genero-ikuspegiak emakumeek, gizonekin alderatuta, jasaten dituzten desberdintasunak identifikatzea, zalantzan jartzea eta baloratzea ahalbidetzen du, baina, funtsean, emaitzan jartzen du arreta. Ikuspegi feminista, aldiz, harago doa eta ezagutza sortzeko moduak berriz hausnartzera eramaten gaitu, jakintza eraikitzeke metodoak zalantzan jarrita eta posizionamendu feminista gure eginda.

Horren harian, arestian aipatutako gidan proposatu genituen gako eta tresnei begirada globalagoa gehitu nahi diegu, ikerketa beraren helburua eta prozesu osoa ikuspegi feministatik zalantzan jartzeko eta berriz pentsatzeko. Helburua ez da genero-ikuspegia alde batera uztea, baizik eta ikuspegia zabaltzea.

Azpitarratu beharra dago hau ez dela ISF-MGIk ekarritako berrikuntza. Hainbat egilek (Marta Luxán Serrano, Jokin Azpiazu Carballo, Lucía del Moral Espín edo Martha Patricia Castañeda Salgado, besteak beste) frogatu dute oso garrantzitsua dela ikerketetan metodologia feministak aplikatzea azterketak baliozkotzeko eta zientziaren balizko neutraltasun, objektibotasun, arrazionaltasun eta unibertsaltasun faltsua saihesteko. Zientzia mundu maskulinoaren barruan dagoenez, ikerketek izaera androzentrista eta sexista dute.

37 Lan-koaderno honetarako egindako elkarriketa batetik.

Haatik, atal honetan ez dugu metodologia feministen gainean teorizatu nahi, literatura opa-roa idatzi baita horren gainean; guk tresna eta prozesu horiek unibertsitatera hurbildu nahi ditugu eta haien garrantzia ulertarazi. GrAL eta MALen potentzialtasun eta mugei buruz hitz egiteko elkarrizketatu ditugun eta diagnostiko-saioetan parte hartu duten pertsonak helarazi dizkiguten hausnarketetara jotzeko aukera izan dugu; metodologiei buruz hitz egiteko, berriz, eragile eta pertsona espezializatuengana jo behar izan dugu, hala nola SIMRef³⁸ edo Ikaske-ta Feministak eta Generokoak Masterrean parte hartzen duen kolektiboa³⁹. Horrek aditzera ematen du metodologia feministen aplikazioak duen hedapen eskasa, gizarte-eraldaketa-rako GrALak sustatzen dituzten ekimenen barruan ere.

3.2. Metodologia feministak aplikatzeko abiapuntua: pertzepzioak eta joerak

Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak egin edo zuzendu dituzten ikasle zein irakasleei egindako elkarrizketetatik ondorioztatu dugu, oro har, proiektuak egiteko metodologia zehatz bat erabili ordez, ikasleek eskema tradizionalari jarraitzen diotela: datuak bildu, aztertu eta proiektua egin. Zentzu horretan, irakasleek azken txostenaren alderdi teknikoan, formatua-ren edo egituraren inguruan sortu daitezkeen arazoak konpontzen laguntzen dute. Esparru metodologiko zehatzak ez erabiltzeko joera horren atzean metodologiaren gaineko trebakun-tza kaskarra egon daiteke; izan ere, gradu askotan, batez ere humanitateekin loturirik ez dutenak, ez dago metodologiaren gaineko irakasgairik. Hortik abiatuta, zaila da ikasleak me-todologiaren beharra zalantzan jartzea, eta are gutxiago metodologia feministaren beharra.

Antzeman dugu elkarrizketatu ditugun hainbat ikasleek ez dutela genero-ikuspegia txerta-tzeko beharrik ikusten, haien ikergaiarekin harremanik ez duela argudiatuta. Berariaz GrAL eta MAL teknikoan idazketan parte hartzen duten eragileek, oro har, pertzepzio bera hela-razten digute: genero-analisia ez da garrantzitsua; eta, zenbaitetan, ez da ez beharrezkoa ez eragin handiko azterketa garatzeko. Horrez gain, egiaztatu dugu ikasleek ez dituztela be-reizten genero-ikuspegia eta ikuspegi feminista; izan ere, lana egiteko metodologia feminis-ta erabili zutela erantzun duten ikasleetako askok, azken finean, genero-ikuspegia txertatu zutela esan nahi zuten.

Bereziki aipagarria iruditzen zaigu azpimarratzea GrAL eta MALetan genero-ikuspegia txer-tatzeko interesa zuten ikasle askok, tresna edo ezagutza falta gatik, ez txertatzea erabaki zutela. Beste hainbat ikasleek genero-ikuspegia txertatu zuten haien lanetan, begirada kritikoa ahaztu gabe. Bestetik, elkarrizketatutako irakasleen erdiak adierazi zuen, haien ustez, ikerke-tetan ez zela genero-ikuspegia txertatu behar. Ikerketa-metodologia feministak erabiltzeko aukerari dagokionez, irakasleek, ikasleekin bat eginez, adierazi dute ez dutela tresna nahiko-rik erronka horri aurre egiteko.

38 SIMRef **Ikerkuntza Feministarako Metodologia Diziplina Anitzeko Mintegia** (katalanez, Seminario Interdisciplinar de Metodología de Recerca Feminista) ikerketa-metodologia feministen inguruan hausnartzeko, prestakuntza jasotzeko eta kritika egiteko gunea da. Informazio gehiago hemen: <http://www.simref.net/ca/> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

39 Diziplina arteko prestakuntza espezializatua ikasketa feministen eta genero-ikasketen arloan, UPV/EHUREn esperientzia eta kapitala barne hartuta. Informazio gehiago hemen: <https://www.ehu.es/es/web/master/master-estudios-feministas> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

GrAL eta MALetan datuak desagregatzeko garaian, ikasle gehienek generoa, adina eta lurraldea hartu dituzte ardatz. Beste batzuek gizarte-maila eta beste aldagai batzuk aukeratu dituzte. Eta datuak ez desagregatzea erabaki zuten ikasleek adierazi dute, haien ikerketan, ez zela beharrezkoa horrelakorik egitea. Puntu honetan nabarmendu behar da, ikasleek datuak desagregatzeko goian aipatutakoak ez bezalako beste aldagai batzuk erabiltzeko, oinarritzko datuetatik abiatu beharko liratekeela. Horrek ikerketa-prozesu sakonagoa eskatuko luke eta GrAL eta MALen kasuan hori ezinezkoa da maiz. Jakinaren gainean gaude lagin txiki batekin lan egin dugula, halere, lortu ditugun emaitzak aurretik genuen pertzepzioarekin bat datoz: ikasle eta irakasleen artean ez dago kontzientzia kritikorik generoari dagokionez, baina badago gizarte-ikuspegia txertatzen duten lanak egiteko interesa.

3.3. Metodologia feministetara hurbiltzea

Metodologia feministak jakintza hegemonikoen neutraltasuna eta izaera arrazionala eztabaidatzeko sortu dira. Pentsamendu zientifikoak gizon zuria gizakiaren ordezkariatzat jotzen duen ideia androzentrikoa du ardatz eta, giza izaera horretatik abiatuta, gaur egun duen izaera neutroa egotzi zaio; hau da, gaur egungo pentsamendu arrazionala eraikitzeko gizateriaren ideia matxista eta arrazista batean oinarritu gara. Hala, unibertsal eta neutrotzat ditugun balio eta metodoak ez dira ez unibertsalak ez neutroak, ikuskera patriarkal eta androzentriko batean oinarritzen direlako (Harding, 1993).

Horregatik, metodologia feministek jakintza hegemonikoaren dekonstrukzioa eta menpeko jakintzen aitorpena dute xede. Metodologia feministek metodologia *neutro* eta, ondorioz, *maskulinoek* proposatzen duten errealitatearen ikuspegi partziala deuseztatzea dute helburu, eta errealitatearen begirada zabaltzen duten beste ikerketa-metodo batzuk proposatzen dituzte.

Metodologia feministek hizkuntza inklusiboa edota generoaren araberako datu desagregatuak erabiltzea baino askoz gehiago eskatzen dute. Metodologia feministek ez gaituzte mugatzen emakumeen edo gai femeninoen gainean ikertzera, ikerketan emakumeak sartzera (*feminista enpirista sineskorrek*⁴⁰ aditzera ematen duten bezala) edo ikerketan genero-ikuspegia txertatzera. Metodologia feministak ez dira une jakin batean balia daitezkeen lanteknikak, baizik eta, posizionamendu feminista gure eginda, ezagutza sortzeko modua berriz pentsatzen laguntzen diguten **lan-prozedurak**. Metodologia feministen asmoa da jakintza eraikitzeko erabiltzen ditugun metodoak, hots, ikerketa beraren prozesua eta helburua, zailtzean jartzea. Baina horrek ez du esan nahi metodologia feministek genero-ikuspegia baztertzen dutenik.

Horrenbestez, metodologia feministak ikerketa osoan zehar luzatzen den **prozesu** bat bezala irudikatzen dira: azterketa diseinatzen eta ikerketa-taldea sortzen denetik (taldeko kideak, kide bakoitzak gain hartzen dituen zereginak, eta abar), bibliografia aukeratzeko den edo emaitzak itzultzen diren arte, helburuen definizioa edota emaitzen ebaluazioa ahaztu gabe.⁴¹

Marta Luxán Serranok eta Jokin Azpiazu Carballo (2016:9,10) *Metodología para la implementación de la igualdad. Metodologías de investigación feministas* dokumentuan diotenetik

40 Feminista enpiriko edo sineskorrek defendatzen zuten jakintza sortzeko guneetan emakumeak egoteak, besterik gabe, gune horiek eraldatuko litzuzkeela.

41 Gendered Innovations <http://genderedinnovations.stanford.edu/what-is-gendered-innovations.html> [Kontsultateguna: 2020/01/16].

abiatuta, metodologia feministek: (1) epistemologia feministak proposatzen dituen kritikak onartzen edo integratzen dituzte (2) teoria feministak begirada metodologikoaz hornitzen dituzte, (3) besteak beste, objektu-subjektu harremana eta publiko-pribatu dikotomia iraultzen eta elkarmenpeketasuna agerian uzten saiatzen dira.

Hainbat egilek, hala nola Javiera Cubillos Almendrak (2015:3), ideia hau defendatzen dute: «Ez dago ikerketa feminista egiteko modu *bat*, baizik eta gai, helburu, konstruktua teoriko, metodo eta teknika desberdinetan arreta jartzera eramaten gaituzten orientazio kontzeptual eta metodologiko asko. Feminismoa gizarte-mugimendu eta korrante epistemologiko gisa ez da eremu bateratu bat. Aitzitik, eztabaida desberdinak daude».

«Ikerketa-teknikak tresnak besterik ez dira. Ematen zaien erabileraren arabera, ikerketa-metodologia feministen zerbitzura egongo dira ala ez. Adibidez, datu kuantitatiboek desberdintasunak bistartzeko balio dute. Garrantzitsuena da gogoan hartzea desberdintasun horiek ikerketa-prozesuan eragiten dutela eta aurre egin behar diegula» adierazi zuen Marta Luxánek lan-koaderno honetarako egin genion elkarrizketan. «Badaude ere inguru feministetan sortu diren teknika batzuk, eta horiek aplikatzeak ikuspegi feministak luze pentsatu dituen hainbat auzien (hala nola ekoizpen narratiboak, gorputz-ibilbideak, eta abar) gaineko hausnarketa sustatzen du».

Marta Luxán Serrano eta Jokin Azpiazu Carballoren dokumentuarekin jarraituz, tresna horietako bat **Investigación-Acción participativa Feminista (IAPF)** esperientzia da. Metodologia horrek lau premisa konbinatzen ditu:

- **Ikerketa:** Ikerketaren helburua ez da soilik jakintza sortzea. Jakintza sortze horrek eragina du lan egiten dugun taldeengan eta eragin hori gure ikerketan kontuan hartu behar dugu. Ez da albo-ondorio bat, pentsatu eta problematizatu behar dugun errealitate bat baizik.
- **Ekintza:** Ikerketak akademiatik haragoko emaitzak eman behar ditu eta aztergai dituen komunitateek azken txostena baino gehiago jaso behar dute.
- **Parte-hartzailea:** GrAL eta MALen potentzial eraldatzailearen gaineko mugen atalean aipatu dugunez, *norbait* ikertzetik *norbaitekin* ikertzera igaro behar dugu. Ikerketak parte-hartzailea izan behar du; horrek esan nahi du bai ikerketa-prozesuan bai erabakiak hartzerakoan parte hartzea.
- **Feminista:** Ikerketak objektu-subjektu bereizketa, androzentrismoa eta eurozentrismoa eztabaidatu behar ditu. Komunitatea erdigunean kokatu behar dugu, ekintza kolektiboaren alde apustu egin, publiko-pribatu dualismoa deuseztatu eta genero-markoetatik eratorritako boterearen eta desberdintasunaren erroak kontu hartu.

3.4. Ikerketetan metodologia feministak aplikatzeko lagungarriak

SIMRef mintegiko Bárbara Biglia eta Núria Vergés-Boschen *Cuestionando la perspectiva de género en la investigación*⁴² dokumentuan eta goian aipatutako Marta Luxán Serrano eta Jokin Azpiazu Carballoren *Metodologías de Investigación Feminista* dokumentuan egiten diren

42 <http://www.simref.net/nuestras-publicaciones/>

analisiak aztergai ditugun ikerketetara, hots, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALetara, egokitzeko zubiak eraikitzen saiatu gara. Alde batetik, ezagutza ekoizteko modu heteropatriarkalak zalantzan jarriko ditugu eta, bestetik, geure buruaz hausnartzeko eta eztabaidarako lagungarri batzuk emango ditugu.

Ikerketa-taldea eta botere-harremanak

GrAL eta MALen idazketan modu batean edo bestean parte hartuko duten pertsonak (irakasleak, GGKE, gizarte zibila, gizarte zibila, etab.) garrantzitsuak dira oso, ikasleari ikerketa diseinatzeko lagunduko baitiote. Taldearen aniztasunaren arabera, jakingo dugu zein interes eta muga izan ditzakeen ikerketak eta, horrez gain, sor daitezkeen botere-harremanenak antzemango ditugu. Botere-harremanak zalan-tzan jartzen baditugu, eskuarki kontuan hartzen ez diren edo, gure kontzientzietan sakon errotuta dauden diskurtsoen bidez, baliogabetu ditugun eragileen aldarria entzunaraziko dugu. Izan ere, besteengan dugun botereaz kontziente izateak edo botere-harremanak antzemateak parte hartzeko modu horizontalagoak eta izaera kolektiboa sendotzen lagunduko digu.

GrAL eta MALen helburuak eta diseinua

Goian aipatu dugun bezala, jakintzaren ekoizpenak eragin zuzena du lan egingo dugun taldeengan; gure ikerketa-prozesuak eragina izango du talde horretako pertsonen egunerokoan. Horren jakitun izan behar dugu testuinguruaren araberrako prozedurak diseinatu ahal izateko. Gainera, gurea ez den testuinguru batean lan egiten dugunean, aurkituko ditugun problematikak gureak bezalakoak izango direla segurutzat hartzeak ikerketa-proposamen integral bat egitea eragozten digu eta agerian uzten du gure buruek unibertsalizatzeko joera naturala dutela. Behar-beharrezkoa da testuinguru eta kultura ezagutzea ezer diseinatzeko hasi aurretik.

Gure lanaren helburuak definitzeko, ikerketa egingo dugun testuinguru gogoan hartu beharko dugu; eta helburuak ikerketa jakin bat egitera eramaten gaituzten motibazioen arabera definituko ditugu. Helburuak ez dira nahitaez estankoko izango; testuinguruaren arabera definituko ditugunez, ikerketa hasitakoan, ezagutzen ditugun heinean zilegi izango da helburuz aldatzea.

Bestetik, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen kasuan, **ikerketa-prozesuaren diseinuak** jakin nahi dugunarekin koherentea izan beharko du. Esate baterako, ura eskuragarri ez izateak emakumeen eguneroko bizitzan duen eragin zuzena aztertze-ko ikerketa bat egiten ari bagara, ikerketa-prozesua tentu handiz diseinatu beharko dugu emakume horien eguneroko bizitza are gehiago ez zailtzeko. Ezin dugu erabili lortu nahi dugun emaitzari mesede egiten dion edozein baliabide; parte-hartzaileekiko errespetuaz gain, komunitate osoarekiko errespetua erakutsi behar dugu.

Datuak sortzea eta aztertzea, ezagutza kokatua

Gure ikerketak neutroak izango ez direla eta posizionamendu politiko jakin bati erantzungo diotela jakin behar dugu. Datuak biltzeko modua nolakoa, ikerketa egi-

teko informazioa halakoa. Horregatik, lortu nahi dugun informazioaren arabera teknika bat aukeratu behar dugu.

Datu kualitatiboek zein datu kuantitatiboek GrAL eta MALak egiteko behar dugun informazioa eskaintzen digute. Datu kuantitatiboak biltzeko, adibidez, galdeketa bat egin dezakegu. Galdeketa diseinuak eta hura helarazteko erabiltzen dugun bideak hartzailearen profila baldintzatuko dute eta, ondorioz, biltzen dugun informazioa ere. Sexu-genero aldagaiak barne hartzeaz gain, ikuspegi feminista txertatu behar dugu; gogoan hartu behar dugu norekin ari garen hitz egiten eta nola egiten diogun galdera. Datu kualitatiboek, aldiz, datu kuantitatiboek eskaintzen ez duten informazioa ematen digute, adibidez, esperientzian oinarritutako jakintza edo esperientzia hori nola bizi izan den. Elkarrizketak eta bizitza-istorioak datu kualitatiboak biltzeko teknikak dira. Azpimarratu beharra dago datu kualitatiboak ez direla kuantitatiboak baino hobeak, eta alderantziz. Datuak biltzeko bi modu desberdin dira, elkarren osagarri izan daitezkeenak.

Datuen analisiari dagokionez, datuen ekoizpena eta analisia bereizteko joera eta lan horiek pertsona ezberdinek egin behar dituzten sinesmena dira nagusi, eta horrek zientziaren izaera dualista indartzen du. GrALak egitean ohikoa da oso joera horiei jarraitzea, baina badago besterik. Datuak ekoizteko eta analizatzeko prozesuak aldi berean gerta daitezke; hots, datuak ekoizten diren aldi berean aztertu daitezke. Gainera, gomendagarria da analisia elkarrekin egitea, interpretazio bakarra egitea saihesteko. Halaber, datuak kolektiboki sortzea posible bada, datuak kolektiboki analizatu daitezke ere. Elkarrizketatutako pertsona datuen analisisan sartzea modu eraginkorra da hark esandakoa errespetatzeko eta gaininterpretazioak saihesteko.

Donna Harawayren ezagutza kokatuaren teoriari jarraituz, ezagutzaren interpretazioari eta ekoizpenari goazkiola, gogoan hartu behar dugu biltzen dugun informazio guztia, berdin dio analisia banaka edo kolektiboki egin, eraldatu egingo dela zeharkatu egingo gaituelako, difrakzioaren efektuarekin gertatzen den bezala: argiak kristala zeharkatzen duenean, difraktatu egiten da eta uhinetan banandu egiten da. Kasu honetan, argia jasotzen dugun informazioa da, kristala gu gara eta kristaletik ateratzen diren uhinak sortzen dugun ezagutza dira (Haraway, 1991). Horrenbestez, garrantzitsua da adieraztea zein posiziotik hitz egiten ari garen; horrela, bildutako informazioak jasan duen eraldaketa neurtu ahal izango dugu. Bestetik, interesgarria da transmititzen dugun jakintza posizio jakin batetik interpretatu eta interpelatu dezaketen beste eragile batzuei helaraztea.

Eta, azkenik, egin nahi dugun analisisan sakontzeko baliagarria da bildutako informazioa aldagaien arabera ordenatzea eta konparatzea, gero, informazioa ikuspegi feministatik aztertu ahal izateko.

Ezagutza irekia, zabalkundea eta itzulketa

Garrantzitsua da beste eragile batzuek gure ikerketak berrikusi, analizatu eta interpelatu ahal izatea erraztea; horretarako, ezagutza irekiko sistemak erabil daitezke. Ezagutza irekiak beste ikerketa batzuk egiteko behar den informazioa berrerabiltzea sustatzen du; sistema horrekin, denbora aurreztu egingo dugu eta gutxiago landu ditugun beste alderdi batzuk jorratzeko aukera izango dugu. UPV/EHUk ezagutza

irekiko sistema bat eskaintzen digu: ADDI biltegia⁴³. Biltegi horretan UPV/EHUko doktorego-tesiak, master-tesiak, gradu amaierako lanak, artikuluko zientifikoak, monografiak, liburuen atalak, irakaskuntza-materiala eta abar aurki daitezke. Sistema horren bidez, egileek baimena ematen diete beste pertsona batzuei haien lana irakurtzeko, erabiltzeko eta inprimatzeko; eta, bestetik, erabiltzaileek ikerketaren integritatea errespetatu beharko dute eta egilea aipatu.

Gaur egun, GrAL eta MALak ez dira aintzat hartzen ez zabaltzen; hortaz, ahaleginak egin behar dira dinamika hori aldatzeko. Aipatutako ADDI GrAL eta MALak zabaltzeko tresna baliagarria da, baina ez nahikoa, oso mugatua delako eta ez duelako ikusgaitasun handirik. Horiek horrela, elkarriketatu ditugun irakasleek hau proposatzen dute: lanak zabaltzeko berariazko jardunaldiak antolatzea, proiektu mota honetarako biltegi berezi bat sortzea, ADDI sisteman lanak iragazteko etiketak diseinatzea, lanak prentsa-oharren bidez zabaltzea eta lanak eskolak emateko erabiltzea. GrAL eta MALen zabalkundearekin, proiektu horiek merezi duten errekonozimenduz gain, ikasleak gizarte-eraldaketan laguntzen duten ikerketak egitera animatzen ditugu.

Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen beste urrats garrantzitsu bat, lanen itzulketak da. *La devolución una metodología instituyente en investigación* (Schejter et al., 2003) lanean planteatzen denarekin bat gatoz. Uste dugu itzulketak, ikerketa itxi ordeztu, ikerketarako bide berriak irekitzen dituela, bai egiten ari den lanerako bai hurrengo lanetarako:

«Ikerketa-lanean itzulketa egiteko hainbat momentu daude. Nahiz eta datuen sintesiak egin, horiek ez dute ixteko balio eta, hortaz, galdera berriak sortzea, metodologiak eztabaidatzea eta aldatzea, arazoan eragina duten aldagai berriak sartzea, unera arteko ikerketa-prozesua ebaluatzea eta emaitzak baliozkotzea ahalbidetzen dute, eragileek gure galdera eta ondorioen tratamenduan parte hartuz. Aldaketa horiek egin ditzakegu, baldin eta ez badugu lanaren azken etapara arte itxaroten itzulketak egiteko».

Askotan, egindako lana ez zaie itzultzen komunitateei edo parte hartu duten eragileei. Gure iritziz, ezinbestekoa da itzulketa egitea eta, gainera, aurrerapauso bat ematea, itzulketa *nola* egin behar dugun hausnartuta. Goian azaldu dugun bezala, ikerketa-prozesua parte-hartzailea izan dadin, testuingurura ahalik eta gehien egokitu dadin eta subjektu/objektu zein ikertzaile/ikertu dikotomiak deuseztatzeko, itzulketa ez da bakarrik egin behar GrAL edo MALa amaitzean. Eta, itzulketak egiteko, ez da nahikoa dokumentu bat entregatzea edo aurkezpen bat egitea; batzuetan, taldearen ezaugarriekin bat datozen parte-hartze dinamikak prestatu beharko ditugu. Parte hartzen duten eragileei nolako ikerketa nahi duen edo ikerketarekin lortzen ditugun emaitzak nola jaso nahi dituzten jakiteko, galdetu egin diezaiekegu.

Hizkuntza eta bibliografia

Monique Wittig (1992) eta Judith Butler (2004) egileek erakutsi digute hizkuntza errealitatearen deskribapenetik harago doala, hizkuntzak errealitateak sortzen dituela. Hortaz, gure lanetan hizkuntza sexista saihestu eta ikuspegi guztietatik inklusiboa

43 Eskuragarri hemen: <https://www.ehu.es/es/web/biblioteca/addi-artxibo-digitala> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

den hizkuntza erabili behar dugu. Zentzu horretan, kategoria estankoen (adibidez, gizona/emakumea, gaixoa/osasuntsua) erabilera akritikoa saihestea gomendatzen dugu; izan ere, kategoria horien erabilera estrategikoa da ikerketa egitean. Horrez gain, orokortasunak ekiditea eta emaitzak lan egiten dugun eremuetara egokitzea gomendatzen dugu. Hizkuntzaren gainean kontzienteki posizionatzeak eta gure lanean hori jakinarazteak aurki ditzakegun mugak ulertzen eta zein posiziotik idazten dugun interpretatzen lagunduko digu.

Bibliografiari dagokiolarik, hainbat egile atal bibliografikoan izen osoa jartzearen alde agertzen dira, emakumeek egindako zenbat lan kontsultatu diren ikusaraztearren. Haatik, metodologia feministak harago doaz, helburu baitute, emakumeak ikusgarri egitea ez ezik, irakurtzen eta kontsultatzen diren emakume egileen kopurua handitzea, ez emakume izateagatik baizik eta errealitate horri erantzuten dioten korrante feminista anitzetan parte hartzeagatik.

3.5. Interseksionalitatearen erronkari aurre egitea

Atal honen hitzaurrian azaldu dugu jada, ikerketan ikuspegi feminista modu integralean aplikatzen ez bada, ikerketa androzentrismoa eta sexista izango dela. Gauza bera gertatzen da beste zapalkuntza-ardatz batzuekin. Ez zientzia ez ezagutza ekoizteko moduak ez dira neutroak, eta ez badira aplikatzen begirada zabaltzeko berariazko metodologiak, *bazterretan gertatzen denarekin* zerikusirik ez duen eta gizartearen zati handi bat ikusezin bihurtzen duen errealitate sesgatu baten gainean egingo da analisia.

Erronka horiek oso konplexuak dira, eta atal honetan ez gara saiaturiko konponbiderik ematen. Halere, defendatzen dugun ikuspegi feminista zabalak planteatzen dituen erronkak direnez, lan-koaderno honetan tokia egin nahi diegu.

Javiera Cubillos Almendraren (2015:119) hitzetan: «Ez da nahikoa generoaren arabeko menderatze-harremanak soilik ikusaraztea, botere-sistema hau beste batzuekin (besteak beste, arrazaren, gizarte-mailaren, sexualitatearen arabekoak) batera eraikitzen eta artikulatzen dela ahaztuta, horrek feminismoak berak kritikatzeko dituen zapalkuntza- eta bazterketa-logikak indartzea eragiten baitu».

Goian, identitate maskulinoa identitate femeninoa kanpo uzten duen identitate zentral eta unibertsal gisa zalantzan jarri dugu, baina subjektu moderno horrek beste subjektibitate batzuk ere baztertzen eta gutxiesten ditu, besteak beste, arrazaren, gizarte-mailaren edo sexu-orientazioaren arabera. Hortaz, feminismo hegemonikoaren ikuspegia bakarrik aplikatzen badugu, emakume arrazializatuak, gizarte-maila menderatzailekoak ez diren emakumeak (Cubillos, 2015:121) edo heterosexualitateaz besteko sexu-orientazioa duten emakumeak ikusezin bihurtuko ditugu.

Ildo horretan, interseksionalitatearen teoria feministak ekarpen interesgarriak egin ditu subjektu modernoaren ezegonkortzeko eta gizarte-errealitatea zein ezagutza sortzeko prozesuak nola interpretatzen ditugun berriz hausnartzeko (Cubillos, 2015:121). Ekarpenean interesgarri horietako bat Patricia Hill Collinsena (1990) da. Egileak matrize bat proposatzen du dinamikoak eta, batzuetan, kontraesankorrak izateagatik (pertsonek berak zapaltzaile eta zapaldu izan baitaiteke aldi berean) hierarkizatu ezin diren zapalkuntza-sistema ezberdinen arteko interakzioa ikusarazteko.

Baina ezin ditugu besterik gabe ikerketarako *subjektu xelebreak* aukeratu, eta *nola* jokatzeko dugun ahaztu. Ikuspegi intersektionala txertatzea ez da soilik subjektuak aukeratzea, hori goiko ataletan azaldu dugun lan-prozedura zabalarekin kontraesanean egongo bailitzateke.

Garrantzitsua iruditu zaigu, elkarri eragiten dieten zapalkuntza-sistema horietatik, lan-koarderno honetan, diagnostiko-fasean aipatu diren bi sistemak sartzea: kolonialitatea eta sexu-zein genero-aniztasuna.

Mugei buruzko atalean aipatu dugu hainbat faktorek zailtzen dutela erronka horiei aurre egiteko prozesua, hala nola denbora, tresna, prestakuntza edota datu falta. Halere, garrantzitsua eta premiazkoa da horren inguruan hausnartzea eta arazoa ikerketan aipatzea. Izan ere, ikerketa-prozesuan aurkitzen ditugun muga propioak onartzea begirada zabaldu dugun seinale da.

Ikerketa-prozesu osoan zehar aurkituko ditugu leku iritsezinak edota inkoherentziak, baina inkoherentzia hausnartuak, baldin eta justifikatzen baditugu, onargarriak eta beharrezkoak dira.

Begirada feminista dekoloniala

Feminismo dekolonialek defendatzen dute genero-zapalkuntza ezin dela unibertsalizatu, jarrera horrek beste botere- eta menderatze-sistema batzuk (besteak beste, arraza) ezkututzen dituelako. Feminismo hegemonikoak berekin dakar mendebaldeko sesgo zuri eta burgesa; horregatik, begirada zabaldu behar dugu emakumeek jasaten dituzten zapalkuntza guztiak aintzat hartu ahal izateko. Horiek horrela, pedagogia dekolonialen alde apustu egiten badugu, ordena moderno eta koloniala eztabaidatzen duten ekintzak sustatuko ditugu, «*munduan eta munduarekin egoteko oso bestelako modu bat*» (Walsh, 2013:20) bultzatuta.

Izan ere, Patricia Hill Collinsek zapalkuntza-sistemak ikusarazteko proposatzen duen matrizeko ardatz bat genero-kolonialitatea da. Ikuspegi horrek agerian jartzen du «gaurdaino mantentzen den kolonizazio-prozesu batetik abiatuta, mundu mailan menderatze-harremanak antolatzen dituzten botere-sistemen» egitura (Lugones, 2008, 2010, 2012; Espinosa, 2009, 2014; Curiel, 2014. Hemen aipatua: Cubillos 2015:124). Feminismo dekolonialak «bere gain hartzen du historia modernitatea kritikatzu berrinterpretatzeko zeregina, andozentrista eta misoginoa ez ezik, intrintsekoki arrazista eta eurozentrikoa izan delako» (Espinosa, Gómez eta Ochoa, 2014:31. Hemen aipatua: Cubillos 2015:124).

Beraz, ideia hori aztertzen ari garen ikerketa-prozesura egokitzen badugu, emakumeak ezin ditugu hartu azterketa-kategoria egonkortzat edo unitate ahistoriko eta unibertsaltzat, identitate generiko gisa jasaten duten menpekotasuna soilik oinarri hartuta. Ezin ditugu ezta ere objektu edo biktimatzat hartu, baizik eta haien historia propioaren eta erresistentzien subjektutzat (Cubillos, 2015). Horretarako, egokia da eskaerak eta beharrak entzuteko ateak irekitzea, biztanleek parte hartzeko guneak sortzea, ahots horiek oihartzuna izan dezaten eta entzuten ikas dezagun; esate baterako, ezagutza bateratua eraikitzeke guneak sortu daitezke, ikusmen-eremua zabaltzeko eta «bere burua bakartzat duen arrazionaltasun hegemoniko menderatzailearen pretentsio kolonial eta inperialak ikusarazteko» (Walsh, 2007. Hemen aipatua: Hainbat egile, 2019:118 in *Otras formas de desaprender*) eta «jakintzen arteko elkarriketarako prest egoteko» (Sousa Santos, 2005. Hemen aipatua: Hainbat egile, 2019:118, *Otras formas de desaprender*).

Era berean, feminismo dekolonialen ikuspegia txertatzen duen ikerketaren alde apustu egiteak «ikertzaile feminista gisa, zuzenean eta bereziki interpelatzen gaitu. Norberak bere burua kokatzea ezinbesteko baldintza da ezagutzaren ekoizpena beti intersubjektiboa eta dialogikoa dela onartzen duen edozein ikerketan. [...] Ikerkide ditugun pertsonak pentsamendu-subjektu gisa eta teoria feministaren sortzaile gisa aintzat hartzeak, ikertzen duenarentzat, gizarte-zientziek sortu duten botere-harremanen mapan duen tokia zalantzan jartzea eta, ondorioz, *norbaitean gainean* ikertzeari uztea eta *norbaitekin* ikertzen hastea dakar» (Gimeno, 2015. Hemen aipatua: Hainbat egile, 2019:119, *Otras formas de desaprender*).

Sexu- eta genero-aniztasuna

Fernando Altamira Basterretxeak dioenez, sexu- eta genero-aniztasuna txertatzea arautik kanpo, harresiz kanpo, dagoen guztia txertatzea esan nahi du. Arautik kanpoko guztia ona dela pentsatu gabe, horrek interseksionalitateaz eta heteroarau-neoliberalismo-etnozentrismo kontzeptuek osatzen duten hirukoaz hitz egitera eramaten gaitu⁴⁴. Horregatik esaten dugu sexu- eta genero-aniztasuna LGTBIQA+ kolektibotik harago doala. Izan ere, kolektibo hori ez dago behartuta kolektiboaren behar interseksionalak asetzera eta, ondorioz, araua indartzen du eta gizarte modernoan gaur egun nagusi den eredu normatibo eta koloniala bultzatzen du. Horren seinale da LGTB siglei egindako aurpegi-garbiketa edo *pinkwashinga*, LGTBIQA+ kolektiboaren borroka aberasteko edo eragiten dituzten zapalkuntza edo genozidioen gainetik begiak kentzeko erabiltzen duten enpresa pribatu eta erakundeen mesederako merkantilizatzen duena.⁴⁵

Idea hori GrAL eta MALetara ekarrita, uste dugu gorputzak eta desioak duten garrantzia, ematen ez bazaie ere, ikusarazi behar dela. Durangon egin ziren Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministetan⁴⁶, Medeak taldeak Elvira Burgosen esaldi bat hartu («ez dago ekintzarik sortzen ez duen hausnarketarik, ezta hausnarketarik gabeko ekintzarik ere») eta honela eraldatu zuen: «ez dago gorputzik gabeko errealitaterik, ezta errealitatea sortzen ez duen gorputzik». Izan ere, sexu- eta genero-aniztasunaren ikuspegia kontuan ez hartzeak errealitateak ukatzea eta menderatze-sistema patriarkala indartzea dakar; beste era batera esanda, harresiz kanpo dauden kolektiboak ikusgarri egiten ez baditu, ikerketak menderatzea indartuko du. Horregatik, gure proiektuetako pertsonen eta komunitateen subjektibotasunak, usteak eta bizitzak kontuan hartzea ekintza iraultzailea da (Altamira, 2016).

Gure GrAL eta MALetan landuko ditugun testuinguruak aztertzeko, garrantzitsua iruditzen zaigu PRISMA kolektiboak⁴⁷ bere manifestuan adierazten duena berreskuratzea. Kolektiboaren esanetan, LGTBIQA+ kolektiboaren diskriminazio zuzenik ez dagoela esan daitekeen kasuetan ere, nagusi den eta nekez eztabaidatzen den heteroarauak modu oso sotilean eragiten du pertsonen arteko harremanetan: espazioak pertsona disidenteen adierazpen-modua zailtzen duten egiturak bihurtzen

44 Lan-koaderno honetarako egindako elkarrizketa batetik.

45 HARRO! (2019): HARRO! Euskal Herrietako Transmaribibollo Plataforma aurkeztu da gaur. <https://ehgam.eus/es/harro-euskal-herrietako-transmaribibollo-plataforma-aurkeztu-da-gaur/>

46 Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministak (2019): Gorputzak eta sexualitateak. <https://www.youtube.com/watch?v=OHDjmdf0xIA> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

47 Eskuragarri hemen: <http://www.ciencialgtbiq.es/> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

direnean, pertsona disidenteen isolamendua bultzatzen da⁴⁸. Horrek ez du esan nahi, ordea, ezin direnik guneak sortu eta gune horietan egiten diren ekarpenak kontuan hartu.

48 PRISMA (2019): Manifiesto PRISMA. <https://prismaciencia.org/home/manifiesto/> [Kontsulta-eguna: 2020/01/16].

4. Etorkizunerako erronkak eta bideak

Aurreko ataletan gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen gaia ikuspegi ezberdinetatik jorratu dugu (2. atalean lanen potentzial eraldatzailea 10 indar-ideiatan jaso dugu, potentzial hori sendotzen duten hainbat esperientzia aurkeztu ditugu eta mota horretako lanek dituzten mugak aipatu ditugu) eta metodologia feministen kontzeptu orokorrak azaldu ditugu, GrAL eta MALak egiteko tresna onargarriak direla argudiatuta (3. atalean, metodologia feministen kontzeptu orokorrak argitzeaz gain, horiek ikerketetan aplikatzeko eta interseksionalitatearen erronkari aurre egiteko lagungarri batzuk eman ditugu).

Baina lan-koaderno honetan ez ditugu ez proposamen itxiak ez GrAL eta MALetan parte hartzen duten kolektiboei zuzendutako eskaera zehatzak bildu nahi; aitzitik, ikerketan zehar identifikatu ditugun eta ikerketan parte hartu duten hainbat pertsonekin egiaztatu eta balioztatu ahal izan ditugun erronkak laburbildu nahi ditugu⁴⁹.

Gure iritziz, GrAL eta MALek anbizio politikoa izan behar dute, aurrera eginda, maximoetara jo beharko lukete; baina badakigu unibertsitatea uzkur dela aldaketak egiteko eta guk eskatzen ditugun aldaketek inplikazio *deserosoak* dituztela hainbat eragilerentzat. Halere, deserosotasun produktiboaren alde apustu egiten dugu, botere-egiturak eta gizarte-bidegabekeriak eztabaidatzera eramaten gaituena, horiek iraultzeko lan egitera bultzatzen gaituena eta, bidean topatzen ditugun erronkak gaindituta, aurrera egiten laguntzen diguna.

4.1. Gizarte-eragileekin elkarrizketan aritzen den eta gizarte-eraldaketarako sinergiak sustatzen dituen unibertsitatearen erronka

Akademiatik harago heltzea: unibertsitatearen eta gizarte-eragileen arteko elkarrizketa sortzea

Elkarlanerako borondatea eta elkarrekiko lankidetzaharreman horizontalak sortzeko interesa funtsezkoak dira gizarte-eragileekin elkarrizketan dagoen eta gizarte-eraldaketarako sinergiak sustatzen dituen unibertsitate bat lortzeko.

⁴⁹ Horretarako, 2019ko abenduaren 11n, ikerketa egiaztatze eta balioztatze lantegi bat antolatu genuen Bilboko Ingeniaritza Eskolan. Hamar pertsonen parte hartu zuten lantegian; parte-hartzaileak, besteak beste, gizarte-erakundeetako langileak, irakasleak eta ikertzaileak, ikasleak eta UPV/EHUko administrazio- eta zerbitzu-langileak izan ziren.

Halere, borondatea ez da nahikoa, eta hainbat baldintzatzaile kontuan hartu behar ditugu.

Elkarrizketak, benetako interesaz bestalde, denbora eta elkar ezagutzea eskatzen du. Unibertsitatearen eta gizarte-eragileen denborak eta erritmoak ez dira errazak bateratzen; eta unibertsitateak horretaz jabetu behar du eta inguruko errealitatera hurbildu.

Gizarte-eraldaketaren alde apustu egiten duen unibertsitate batek, besteak beste, estruktibismo akademikoa eta gizarte-kolektiboen eta haien borrokaren instrumentalizazioa desagerrarazi behar ditu. Unibertsitateak bere osotasunean gizarte-eragileak solaskide gisa ezagutu eta aintzat hartu behar ditu, eta jakin behar du zein eremutan mugitzen diren, nola ikusten duten unibertsitatea kanpotik eta zeintzuk diren haien proposamenak edo eskaerak, hortik, elkarrekin hausnartzeko zer-nolako zubiak eraiki daitezkeen eta nola aritu berriz ere subjektu pasiboak ez sortzeko. Horretarako, baliagarria izango litzateke aurretik diagnostiko bat egitea, gizarte-kolektiboek unibertsitatea nola ikusten duten jakiteko eta elkarlanean aritzeko dauden aukerak eta horretarako baldintzak aztertzeko.

Gizarte-eraldaketarako sinergiak

Jakina, unibertsitateak gizartearekin dituen harreman guztiak ez dira gizarte-eraldaketarako; horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu hausnartzea *zerren inguruan* eta *zertarako* nahi duen unibertsitateak elkarrizketan aritu kanpoko eragileekin. Aldizkako GrAL eta MALei segida ematen dieten eta harago eramaten dituzten sinergiak ahalbidetzeko, unibertsitatearen eta gizarte-erakundeen arteko aliantza egonkorra bilatu behar dugu, eta unibertsitate barruan zein kanpoan intzidentzia duen agenda bat eraiki. Horretarako, lankidetzaren hitzarmenak definitu eta xedatu beharko dira, elkarrekin lan egiteko guneak antolatu beharko dira, baita unibertsitate kanpo ere, eta gune horietan ikasleen parte-hartzea bultzatu beharko da.

Begirada holistiko baten alde apustu egitea

Goian esan dugun bezala, GrAL eta MALak jakintza-eremu desberdinen arteko elkargune eta eztabaida-guneak izan daitezke (UPV/EHUko hainbat eskolen, gizarte-eragileen eta beste unibertsitate batzuen arteko proiektu bateratuen barruan egindako lanak) eta begirada holistiko eta integralak sustatu ditzakete. GrAL eta MALek hiperespezializaziorako joera apurtu eta jakintzen arteko elkarrizketa erraztu dezakete, baina, horretarako, elkarrizketa sustatzen duen ingurune bat sortu behar da. Unibertsitatearen diskurtsoan transbertsalitatea eta diziplinartekotasuna gero eta gehiago aipatzen badira ere, kontzeptuok ez dira praktikan islatzen, eta oraindik gutxi dira balio horiek sustatzen dituzten esperientziak.

4.2. GrAL eta MALen prozesuak kolektibizatzeke erronka

Banakotasuna alde batera uztea

Derrigorrezko banakotasunak GrAL eta MALak hein handi batean baldintzatzen eta mugatzen ditu, haien irismenean eta garapenean eragiten baitu. Talde-lanak, al-diz, elkarren arteko laguntza, segurtasuna, sormena eta emaitza nabarmenagoak bultzatu ditzake. Taldean lan egitean banakotasuna alde batera uzten da eta transdiziplinatasuna lortzeko aurrerapauso bat (nahikoa ez den arren, eman beharreko pausoa) ematen da.

Baina, talde-lana ahalbidetzeko GrAL eta MALak egiteko jarraibideak zehazten dituen eta lanak banaka egin behar direla ezartzen duen araudia aldatu beharko litzateke. Unibertsitateak GrAL eta MALak arautzeko esparru-araudi bat du; hori aldatzen zaila da, baina zentroek badituzte araudi propioak ere, eta, nahi izanez gero, egiletza kolektiboa barne hartzeko aukera izango lukete.

Komunikazioa prozesu eta zubi

Komunikazioa, GrAL eta MALak egiteko fase guztietan gertatzen den prozesua, funtsezkoa da lanak behar bezala egin ahal izateko. Beste lan akademiko batzuekin alderatuta, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALetan, komunikazioak garrantzi handiagoa du, lan bakoitzean, eskuarki, eragile ugari hartzen dutelako parte eta era askotako harremanak sortzen direlako; hortaz, parte hartzen duten subjektuen ahotsak txertatu behar dira eta subjektu horien erritmoetara moldatu beharra dago. Alde batetik, horrek lana aberastu egiten du, baina, bestetik, prozesua moteldu edo luzatu dezake batzuetan.

Era berean, komunikazioa funtsezkoa da banakotasuna alde batera uzteko eta mota horretako lanen lorpenak kolektibizatzeke, normalean, ez baitira eremu akademikotik irteten. Horretarako, hainbat neurri proposatzen ditugu: GrAL eta MALen aurkezpen akademikoak ez ezik, beste komunikazio-euskarri batekin (bideoa, podcast-a, posterrak, eta abar) aurkezpen bat egitea eta kanal ezberdinen bidez zabaltzea; mota horretako lanak ezagutarazteke unibertsitatea eta gizarteak elkartzen dituen topaguneak eta elkarrizketa-guneak sortzea (edo zabaltzea, lehendik baldin badaude), hala nola gizarte-eragileekin elkarlanean urtero antolatutako jardunaldi edo topaketak, bai unibertsitate barruan bai kanpoan. Horren inguruan garrantzitsua iruditzen zaigu azpimarratzea parte-hartzaileek gune horiek batera eraiki eta diseinatu behar dituztela; gizarte-erakundeak ezin dira izan haien esperientzia kontatzera bertaratutako gonbidatu soilak, guneak diseinatzeko prozesuaren hasiera-hasieratik hitza izan behar dute eta erabakietan parte hartu.

4.3. Hezkuntza emantzipatzaileko prestakuntzaren erronka

Prestakuntza GrAL eta MAL eraldatzaileen funtsezko elementu bat da. Mota horretako lanak egiteko, gizarte-eraldaketan garrantzitsuak diren alderdiak kontuan hartzen dituen prestakuntza behar da, eta alderdi horiek ez dira jorratzen, ez zeharka ez berariaz, ezein gradutako ikasketa-planetan; ondorioz, curriculumetik kanpoko heziketa osagarria da beti, eskaintza mugatua duena.

Eta ez gara ari soilik ikasleen prestakuntzaz. Gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALek planteatzen dituzten erronkak ez dituzte ikasleek eskusiboki eta nagusiki beren gain hartu behar; horregatik, irakasleen prestakuntza hobetu eta zabaldu behar dela, eta irakasleen parte-hartzea sustatzeko formatuak sortu behar dira.

Ikasketa-planetan eragina izatea

Unibertsitatean zer-nolako ezagutza transmititzen den eta zertarako transmititzen den berrikustea proposatzen dugu. Halaber, proposatzen dugu graduen curriculum berraztertzea, graduaren arabera, curriculumean gizarte-eraldaketarekin lotura duten gai jakin batzuk (adibidez, giza eskubideak, giza garapenerako teknologiak eta jasangarritasuna, ekonomia sozial eta solidarioa, nazioarteko lankidetzak) sartzeko.

Ikasle zein irakasleentzako prestakuntza osagarria

Gure ustez, gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALak egiteko behar den prestakuntza titulazio guztien curriculumean sartu beharko litzateke, baina, oraingoz, prestakuntza hori osagarria da, UPV/EHUn behintzat. Hala, gaur egungo egoeran, Garapenerako Lankidetzak Bulegoaren bidez ikasleei eskaintzen zaizkien ikastaro monografikoen eskaintza eta SAE/HELAZ Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak irakasleei eskaintzen dizkien ikastaro monografikoen eskaintza zabaltzea eta indartzea proposatzen dugu.

Modu generikoagoan, unibertsitatetik kanpo emandako ikastaroak edo gure lurraldean zein beste batzuetan egindako lanak edo boluntariotza prestakuntza osagarri gisa aintzat hartzea proposatzen da. Eta, azkenik, proposatzen dugu ikasleei eta irakasleei batera zuzendutako jarduera hezigarriak bultzatzea, akonpainiamendu-esperientziak eta elkarrekin ikasteko harreman horizontalak ahalbidetzeko.

4.4. Genero-ikuspegia gainditzeko eta metodologia feministara jotzeko erronka

Ikuspegi feminista txertatzeak duen garrantzia helaraztea eta metodologia feministak ezagutaraztea

Genero-ikuspegia aplikatzeko beharra oraindik zabaldu ez den arren, erronka berriak aldaketa are sakonagoa egitea eskatzen digu: gizarte-eraldaketarako GrAL eta MALen ikerketa-prozesuetan ikuspegi feminista txertatzeak duen garrantzia helaraztea. Unibertsitate-mailan, oro har, uste dute begirada feminista ez dela ikerketa guztietan txertatu behar; horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu ideia hori deuseztatzea: analisi feminista ez da generoarekin lotutako gaiak jorratzen dituzten ikerketetan bakarrik egin behar.

Era berean, kezka eragin digu jakiteak analisi holistikoagoak txertatzeko beharra ikusten duten ikasleek ez dakite nola jokatu, ez dutelako tresnarik. Egoera hori erremediatzeko, garrantzitsua da metodologia feministak ikerketa-prozesua hasi aurretik ezagutaraztea; horrela, ikasleek ikerketan ikuspegi feminista txertatzeko tresnak izango dituzte. Hona hemen hori lortzeko ideia batzuk:

- Ikerketa-talde barruko botere-harremanen azterketa egitea, parte hartzeko modu horizontalagoak ezartzeko eta izaera kolektiboa sendotzeko.
- Helburuak definitzean, ikerketa zein testuingurutan egingo den kontuan hartzea eta ezagutu nahi dugunarekin bat datorren ikerketa-prozesua diseinatzea.
- Ikerketak ez dira neutralak; hortaz, tentu handiz aukeratu behar dugu datuak sortzeko eta analizatzeko modua, interpretazio bakarra saihesteko.
- Ikerketak ezagutzera emateko eta aintzat hartzeko, lanen zabalkundea, eskuragarritasuna eta itzulketa erraztea.
- Hizkuntza inklusiboa erabiltzea eta korrante feministetako emakume egileek idatzitako bibliografia bultzatzea.
- Kontuan hartu behar dugu ikuspegi feministak ikuspegi interseksionala barne hartzen duela; beraz, generoaren araberako menderatze-harremanak ez ezik, beste guztiak ere ikusarazteko ahalegina egin behar dugu.

Ikerketa-metodologia feministen aldeko apustua egiteaz gain, gaur egun GrAL eta MALak ebaluatzeko baliatzen diren irizpideak sakon aztertu beharko liriateke. Errealitatea aztertzen duten eta metodologia feministak erabiltzen dituzten ikerketak baloratu eta aintzat hartu behar ditugu; bestela, ezingo dugu gaur egun nagusi den boluntarismotik ihes egin.

Eskertzea

Ez dugu lan-koaderno hau bukatu nahi elkarrizketa sakonen bidez GrAL eta MALei buruzko euren esperientziak eta gogoetak kontatzeko ateak ireki dizkiguten pertsoneri eskerrak eman gabe. Amaia del Ríok, Fernando Altamirak, Marta Luxanek, Maria Viaderok, Sandra Fernandezek, Aura Vazquezek, Enkarni Gomezek, Vidalina Moralesek, Amaia Ibarrondok, Leire Imazek, Marta Barandiaranek, Estibaliz Saez de Camarak, Iratxe Amianok, Rakel Oiónek, Joseba Sainz de Murietak, Ikasle Konseiluak eta UKSko taldeak bere denbora eskaini digute lan-koaderno hau aberasten.

Era berean, diagnostikoa egiteko, ikasleriaren iritzia ezagutarazteko eta proposamenak egiteko gure eztabaida guneetan parte hartu duten pertsoneri eskerrak eman nahi dizkiegu.

Bukatzeko, eskerrik asko ere bai gizarte eraldaketarako GrAL/MALein lan egin duten ikasle eta irakasleei buruzko informazioa lortzeko formularioak erantzun dituztenei.

Lan hau egin dugunok Mugarik Gabeko Ingeniaritza – Ingeniería Sin Fronterasen parte hartu duten pertsona guztiek urte hauetan utzitako aztarna aintzatetsi nahi dugu. Sortutako jakin- duria bildu izana eta bidean pausu bat gehiago eman izana espero dugu.

Bibliografía

- ALTAMIRA, Fernando (2016): *Bailando con el deseo. Algunas claves para incorporar la diversidad sexual y de género en las ONGD*. Cuaderno de Investigación en procesos de Desarrollo. Departamento de Proyectos de Ingeniería - Universitat Politècnica de València, Valencia
- Hainbat egile (2019): *Otras formas de (des)aprender. Investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. Hegoa eta SIMREF, Bilbo.
- BATTANER MORO, Elena, GONZÁLEZ CHAMORRO, Carmen eta SÁNCHEZ BARRIOS, José Luis (2016): *El trabajo de fin de Grado (TFG) en las Universidades españolas. Análisis y discusión desde las Defensorías Universitarias*. Rued@. Revista Universidad, Ética Y Derechos, (1). Editorial UCA, Cádiz. Hemendik berreskuratua: <https://revistas.uca.es/index.php/Rueda/article/view/2586>
- BENGOTXEA, Mercedes (2014): “Las buenas alumnas ante los TFG: atrapadas entre la cultura comunicativa femenina y el androcentrismo” en *Libro de Actas de la III Jornada de Innovación en Xénero, Docencia e Investigación*. Universidade de Vigo, Unidade de Igualdade, 9-35 or.
- BIGLIA, Barbara eta VERGÉS BOSCH, Nuria (2016): Cuestionando la perspectiva de género en las investigaciones REIRE, Revista d’Innovació i Recerca en Educació, 9(2): 12-29
- BREUER, Franz (2003): *Subjectivity and reflexivity in the social sciences epistemic windows and methodical consequences*. Forum Qualitative Sozialforschung / Forum: Qualitative Social Research.
- BUTLER, Judith (2004): *Lenguaje, poder e identidad*. Síntesis, Madrid.
- CUBILLOS ALMENDRA, Jabiera (2015): *La importancia de la interseccionalidad para la investigación feminista*. Oxímora Revista Internacional de ética y política. 7. zk. 2015eko udazkena, 119-137 or. Hemendik berreskuratua: <http://revistes.ub.edu/index.php/oximora/article/viewFile/14502/17834>
- DE SOUSA SANTOS, Boaventura (2010): *Para descolonizar el occidente Más allá del pensamiento abismal*. CLACSO eta Prometeo Libros, Buenos Aires.
- DE SOUSA SANTOS, Boaventura (2013): *Descolonizar el saber, reinventar el poder*. Ediciones Trilce, Txileko Santiago
- DEL MORAL, Lucía (2012): *En transición. La epistemología y filosofía feminista de la ciencia ante los retos de un contexto de crisis multidimensional*, e -cadernos ces. Hemendik berreskuratua: <https://journals.openedition.org/eces/1521>
- EMAUS (2017): *Modelo de Universidad Transformadora. Ekimuin construyendo modelos de universidad transformadora*. Emaus, Donostia. Hemendik berreskuratua: http://www.emaus.com/pdf/ekimuin_modelo_cas.pdf
- HARAWAY, Donna. (1991): *Simians, Cyborgs, and Women The Reinvention of Nature*. Routledge, New York.

- HARDING, Sandra (1993): *Ciencia y Feminismo*. Ediciones Morata S.L., Madril.
- HILL COLLINS, Patricia (1990/2000): *Black feminist thought. Knowledge, consciousness, and the politics of empowerment*. Routledge, New York.
- LANDER, Edgardo (ed.). (2000): *La colonialidad del saber eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*. Caracas: Facultad de Ciencias Económicas y Sociales (FACES-UCV), Instituto Internacional de la UNESCO para la Educación Superior en América Latina y el Caribe (IESALC).
- LANDER, Edgardo (2000a): *Ciencias sociales saberes coloniales y eurocéntricos*, in: E. Lander (comp.), *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales. Perspectivas latinoamericanas*, Buenos Aires, CLACSO.
- LUXÁN, Marta eta AZPIAZU, Jokin (2016): *Módulo III Metodología para la implementación de la igualdad. Tema 4 Metodologías de Investigación Feminista*. Emakume eta Gizonen berdintasunaren gaineko Masterra: Berdintasun Agentek. UPV/EHU. Hemendik berreskuratua: <https://www.ehu.es/documents/1734204/6145705/Metodolog%C3%ADas+de+Investigaci%C3%B3n+Feminista/54172098-3058-1d47-df68-780965fa8f46>
- MEDINA, Rocío (2019): “Aplicaciones metodológicas en feminismos y de(s)colonialidad” in *Otras formas de (des)aprender. Investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. Hegoa eta SIMREF, Bilbo.
- SAURA, Geo eta BOLÍVAR, Antonio. (2019). Sujeto Académico Neoliberal: Cuantificado, Digitalizado y Bibliometrificado. *REICE. Revista Iberoamericana Sobre Calidad, Eficacia Y Cambio En Educación*, 17(4), 9 - 26. Hemendik berreskuratua: <http://dx.doi.org/10.15366/reice2019.17.4.001>
- SCHEJTER, Virginia; SELVATICI, Laura; CEGATTI, Julia; SAMARELLI, Marisa; BARCELÓ, María E; DE RACO, Paula; PIACETINI, Sergio (2003). “La devolución: una metodología instituyente en la investigación”. XI Jornadas de Investigación en Psicología, Facultad de Psicología, Universidad de Buenos Aires. 2004ko uztaila. II. lib. 116-118 or. Hemendik berreskuratua: <https://tinyurl.com/ybx6rp5p>
- WITTIG, Monique (1980): *La pensée straight*. Editions Amsterdam, Frantzia.
- WALSH, Catherine E., (2013). Pedagogías decoloniales caminando y preguntando: notas a Paulo Freire desde Abya Yala, *Revista Entramados. Educación y Sociedad*, 1, 17-31 or. Hemendik berreskuratua: <http://fh.mdp.edu.ar/revistas/index.php/entramados/article/view/1075/1118>

